



DEKORAZIOA ETA ERAIKUNTZA / 11

'GERBAS': KOBLAKARIA IZANDAKOAREN IZENA ETA IZANA, ARGITARA

Abadiñarrek domekan agurtuko dituzte santrokazak, 'Gerbas' panpina aireratuta. Baina, nor izan zen 'Gerbas'? Benetan existitu zen? ANBOTOk izena eta izana ipini dizkio garai bateko koblakari maitagarriari / 2-3



'Gerbas', Santo Domingo
Eguneko kalejiran.

"Txirrindulariek mendi bizikleta apustu erakargarri legez ikusi dezaten lan egingo dugu"

Ion Sarasua mendi
bizikletako hautatzailea
da Euskadiko
Federazioan / 28



Ekainaren 9tik aurrera,
aparkaleku sistema
berria martxan Traña-
Matienan, hiru gun
desberdineguz / 8

UNAI GARAY

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Hamarnaka puxika koloretsuri lotuta, Txanporta plaza bete-beterik dagoela eta herritarrek irribarrea dutela ahoan. Abadiñarrek halantxik aireratzan dute urtero-urtero *Gervas*, santrokazetako pertsonaia maitatua. Baina, zein izan zen pertsonaiaren atzeko pertsona? Benetan existitu ote zen? Ba, bai. Esaera zaharrak dioen legez, izena duen guztia existitzen da, eta, kasu honetan ere, halantxik da: *Gervas* koblakaria, bene-benetan bizi izan zen.

Julian Agirre Zubizarreta zuen izena, eta, Bizkaiko elizbarrutiko bataiatze-agirien arabera, 1869ko martxoaren 16an jaio zen, Abadiñoko Belen etxean, gaur egun *Gervasena* legez ezagutzen den baserrian. Bere aita Gervasio Agirre Lupiola izan zen (beharbada aitarengandik etorriko zitzaion geroagoko gaxizena) eta bere ama Agustina Zubizarreta Alberdi. Hamar seme-alabaren artean seigarrena izan zen, eta anaia bikotxa izan zuen: Anselmo. Honako hauek ziren gainerako neba-arrebak: Eulalia, Guillermo, Fausta, Felipe, Maria Dolores, Raimunda, Gorgonio eta Dominica.

Gaur egun, Maritere eta Abel Uribeganekoa Agirre bizi dira *Gervasen* jaiotetxean, *Gervaseñan*. Neba-arreba biak koblakariaren senide zuzenak dira, Julian Agirre euren amaren osaba izan zen eta. "Guk ez genuen ezagutu, eta familian berba gutxi egiten zen osaba Julian-*Gervas*-i buruz. Badakigu gizon ona zena, maitagarria, inori txarrik egiten ez ziona, eta badakigu ez zitzaiola behar egitea batere gustatzen. Bere anaia bikotxa [Anselmo] abade ibili zen Garain, ganadua ere bazeukan, eta beharrean hastera bultzatzen zuen osaba Julian-*Gervas*. Baina, ez ba! Gurago izaten zuen kantuan ibili", azaldu du Maritere Uribeganekoak. Abelek ere ondo gogoan du etxean entzuniko beste pasadizo bat: "Oso pertsona alaia zen. Beti zegoen umore onez. Udatiarrak, aberatsak, Abadiñora etortzen zirenean, *Gervasek* abestu egiten zien. Astebeterako eroaten zuten osaba Julian-*Gervas* eurekin. Jaten eta edaten ematen zioten, eta hark, trukean, abestu egiten zien. Hori bai, behar konturik, ezta ezta..." azaldu du Abelek, irribarrez.

'Gervas': Julian Agirre Zubizarreta zuen izena

'Gervas' Abadiñoko jai nagusietako pertsonaia legez ailegatu da gaur arte, baina nor izan zen haren atzeko hezur-haragizko pertsona? Erreportaje honetan, ANBOTOK izena eta izana ipini dizkio panpina maitatuaren atzeko koblakari ezezagunari



Julian Agirre Zubizarreta 'Gervas', 1940ko hamarkada bueltan, udaletxearen atzealdean. ABADIÑOKO UDALA.

Artista bohemioa

Batek daki. Beharbada, XIX. mendean zabalduko korrante artistiko bohemioaren adierazle izango zen 'Gervas'. Maritereren eta Abelen esanek, eta Abadiñoko hauteskunde errol-dako agiriak ere joera hori izan zezakeela iradokitzen dute. Izan ere, 1895eko hauteskunde agi-

rietan, 'Gervas'-ek 25 urte zituela, otzaragilea zela dago jasota. Baina urte batzuk geroago, 1908ko hauteskunde erroldan, beste ogibide bat zuela ageri da: batetik besterako artista, edo artista ibiltaria. Bestalde, agiriok baliagarriak dira Abadiñon zabaldua dagoen uste bat gezurtatzeko, hainbat herritarrek

itsua zela uste izan dute eta. Ez zen horrela. 1895eko eta 1908ko erroldetan jasota dagoenez, Julian Agirrek irakurtzen eta idazten zekien. Maritere Uribeganekoak ere horixe baieztatzen du: "Gutxi ikusten zuen, baina ez zen itsua. Hori bai, egoeraren arabera halantxik jokatzeko komeni bazitzaion, ez zuela ikusten

esaten zuen". 'Gervas'-ek gitarra jotzen zuela ere zabaldu zen, baina ez ei da egia, nahiz eta jaietako panpinak gitarra eskuetan duen urtero-urtero. Julian Agirreraren musika-tresna zarrabetea zen, biolinaren antzeko instrumentu mekanikoa. Hainbat abesti konposatu zuen tresna horregaz: *Si tus labios son de coral* eta *Kyrieleison cafes con leches que ricas son*, adibidez. Abadiñoko Udalak 1987an kale-ratutako *Abadiño Ezagutzen* liburuan letrak eta partiturak daude. Felix Larrañaga 'Gervas'-en auzokideak jaso zituen abestiok, ahoz.

Pertsonatik pertsonaiara

1940ko hamarkada bueltan, gaur egungo Abadiñoko udaletxea ongintzako ospitale legez erabili zen. "Azken urteetan, 'Gervas' han bizi izan zen, mojekin", zehaztu du Mariterek. Orrialde honetako irudia da horren erakusgarri. *Traña-Matiena: izen bi, historia bakarra* liburuan halantxik dago jasota. Liburuan deskribatzen denez, 1945 bueltako argazkia da. 'Gervas' erdian ageri da, zarrabetea eskuetan. Aldamenean zutunik dagoen gizonezkoa Juan Olazararen abade durangarra da; eta atzeko emakumea ongintzako ospitaleko arduraduna. Irudi hori 'Gervas'-en dokumentu grafiko ezagun bakarrenetarikoa da.

Edozelan ere, argi dagoena da 'Gervas' maitatuak gaurdaino iraun duela abadiñarren iruditegi kolektiboan; santrokazetako panpina da horren adibide. Panpina hegalaria 1979ko jaietan aireratu zuten lehenengoz, hamarkada batzuk lehenagora arte bizi izandako herritarraren omenez. Hau da, Bilboko Aste Nagusiak Marijaia kaleratu eta urtebetera erabaki zuen Abadiñoko jai batzordeak antzera bateko pertsonaia sortzea. Garai hartako jai batzordeko kideek ume-umeak zirela ezagutu zuten 'Gervas', eta haren irudia betiko geratu zitzaizen barruan sartuta. Eta hasieratik gauza bat behintzat argi izan zuten: jaien amaieran ez zuten pertsonaia erreko. Halakorik ez gero. Eta halantxik, jai batzordeko kideek hezur-haragizko pertsonaren mundu ikuskerara bera eskaini zioten jaietako pertsonaiari: amets egiteko aukera, hegan irteteko. Askatasuna, funtsean.



Nuneaton hiriko berripaper batek argitaratutako albistea, 1993an. ERAZ



Tony eta Veronica Brown, 1994an, Javier Uriarte alkateagaz. JAVIER URIARTE

'Gerbas'-ek Ingalaterran lur hartu zuenekoa

Gatx izan daiteke sinesten, baina egia da: orain 32 urte, santrokazetako pertsonaiak Ingalaterran amaitu zuen bere hegaldia, Nuneaton hiriko etxe bateko lorategian. Etxeko bizilagunek harriduraz jaso zuten bisitari ezezagunaren etorrera

Ekaitz Herrera ABADIÑO

Elgoibar, Mendaro, Erroibar, Katalunia eta Kantauri itsasoa. 1979an lehenengoz aireratu zutenetik, 'Gerbas'-ek hainbat lekutan lur hartu du, baina bidaiarik luzeena eta bitxiena 1993koa izan zen, inondik ere. Urte hartan, panpina Ingalaterraraino ailegatu zen; Birmingham ondoko Nuneaton hirian lurreratu zen. Tony eta Veronica Brown zur eta lur geratu ziren etxeko lorategian ezohiko bisitaria jausten ikusi zutenean. Eurek 'erreskatatu' zuten 'Gerbas', eta hiriko aldizkari bati eman zioten aurkikuntzaren berri. Albiste hura gure eskualdera ere ailegatu zen gerora, Eraz astekariak Ingalaterran gertatutakoaren berri eman zuen-eta Durangaldean, irudian ikusi daitekeenez.

Esandako moduan, 1993. urtea zen eta sasoi hartan Javier Uriarte zen Abadiñoko alkatea. Uriartek ondo akorduan du gertaturikoa: "Bikote ingelesa 'Gerbas'-ek aldean zeramatzan euskarazko eta gaztelaniazko mezuak argitzen hasi zen. Euren lagun bati eskerrak lortu zuten mezua ulertzea, gaztelania ulertzen zuen bati eskerrak. Eta, orduan, udaletxera deitu zuten. Gizon itxurako panpina bat topatu

zutela esan ziguten, eta guk baietz erantzun genien, halantxik zela. "Baina, zelan da posible?", galdetzen ziguten. Gure ohitura zela azaldu genien, eta dena ulertu zutenean, usadio polita genuela esan ziguten. Behin horiek argituta, Abadiñora egun batzuk pasatzera etorri gura ote zuten galdetu genien. Baiezkoa eman ziguten", azaldu du Uriartek, irribarrea ahoan. Izan ere, orain urte batzuk arte, Abadiñoko Udalak 'Gerbas' topatzen zuena saritzeko ohitura izan du: asteburu-pasa eta egonaldia eskaini izan die opari panpina hegalaria topatzen zutenei. Eta halantxik, hurrengo urtean, 1994an, Veronica eta Tony Brown ingelesak Abadiñoko santrokazetara etorri ziren herria eza-gutu eta jaiez gozatzera. "Oso bikote jatorra zen, kategoriakoa. Hiru bat egun egin zituzten hemen, poz-pozik. Udalak bere gain hartu zituen gastu guztiak, hegaldia eta ostatua barne. Egonaldian zehar, Luis Berrizbeitia eta Juan Antonio Atutxa herri-tarrak izan zituzten zelanbaiteko gidari", gogoratu du orduko alkateak.

Ibilbide gastronomikoa

Ingelesak abadiñar horiek biak izan zituzten, hain zuzen ere,

egonaldiko arduradun. Atutxak, adibidez, ondo gogoan du ingelesekin partekatutako esperientzia: "Behin, Abadiñoko Mili-kuena jatetxera eraman genituen bazkaltzera. Beste behin, Eloorrioko Txirri jatetxera. Horrez gainera, akorduan daukat asteburu hartan Berbaroren bosgarren urteurrena zela eta bazkaria zegoela Kurutziaga ikastolan. hara ere eraman genituen". Han eta hemen bazkaldu bitartean, abadiñar biek hemengo gastronomia eta ohiturak erakutsi zizketen ingeles biei. "Txipiroiak bere tintan dastatzeko proposatu genien, eta hasieran egundoko higuin aurpegia ipintzen zuten. "Holakorik, gero!", esaten ziguten. Baina behin probatu eta gero, ez zuten besterik gura izaten!", kontatu du Atutxak. Luis Berrizbeitiak ere honako datu hau partekatu du: bikote ingelesak urte askoan bidali izan du postala urtero-urtero Abadiñoko udaletxera, Gabon sasoian.

"OSO BIKOTE JATORRA ZEN, KATEGORIKOA. POZ-POZIK EGON ZIREN ABADIÑON"

Dupla, Süne eta paella-jana Gerbas agurtu aurretik

Traña-Matienako jaiak bateko eta udalerriko jai nagusiak besteko, abadiñarrak bost astez ibili dira jairik jai. Asteburu honetan amaituko dute sanprudentzioekin hasi eta santrokazekin amaituko den jai-sorta, dantzarien dantza saioa, txokolatada eta 'Gerbas'-en agurra tarteko. Ekitaldiok domekan izango dira, 18:00etan hasita, Txanporta plazan. Baina hitzordu horiek ailegatu baino lehenago

askotariko ekitaldiak izango dituzte zain. Zapatuan, adibidez, paella-jana izango dute Ferialekuan, 14:30ean. Herriko eragile ugariak parte hartuko dute antolaketan.

Bestalde, iluntze partean musika ekitaldi ugari gozatu ahal izango da Zelaletako kaleetan. 18:30ean, Orkresta elektrotxararak gatza eta piperra ipiniko ditu jaizaleen gozamenerako. Gauean, sona

handiko taldeek hartuko dute Txanporta plazako eszenatokia. Dupla eta Süne taldeek euskal musikagintzan boladan dauden abestirik dantzagarrienak joko dituzte oholta gainean. Azkenik, DJ Kool musika-jartzaileak parrandazalerik gautxorienak ipiniko ditu dantzan, ordu txikiak arte. Egitarauko zehaztasun guztiak anboto.org atarian kontsultatu daitezke.



Süne taldeak pop eta trikiti doinu elektronikoz beteko du Txanporta. AIRAKA



Udaletxean egindako prentsaurrekoa. DURANGOKO UDALA

Bihar Afrikaren Eguna ospatuko dute Durangon

Astelehenaz geroztik Arrazakeriaren Aurkako Astea egiten dabilta Durangon. Jardunaldiak migratzaileen eskubideez sentsibilizatzea du helburu. Zapatuan ospatuko dute egun nagusia. Afrikako komunitateak bere kultura ezagutaraziko du

Ekaitz Herrera DURANGO

Astelehenaz geroztik Arrazakeriaren Aurkako Astea egiten dabilta Durangon, eta zapatuan Afrikaren Eguna ospatuko dute. Ekimen bien helburua durangarrak migratzaileen egoeraz eta horiek babeserako eta segurtasunerako duten eskubideaz sentsibilizatzea da. Jessica Ruiz gizarte ongizateko zinegotziak azaldu duenez, egitasmoen helburuetariko bat enpatia sustatzea izango da: "Funtsezkoa da bestearen lekuan ipintzea, migratzaileek dituzten zailtasunak eta erronkak ulertzeko ahalegina egitea, baita gure udalerriko gizarte sareari egiten dizkieten ekarpenak ospatzea ere". Zinego-

tziak gaineratu duenez, erronka "kolektiboa" da eta durangar guztiek zeregin garrantzitsua dute herritar denak durangarren parte sentiarazteko. Herriko ikastetxeak ere bete-betean inplikatu dira Arrazakeriaren Aurkako Astea. Esate baterako, Fray Juan Zumarraga institutuko ikasleek *Loturak Zabaldutz* proiektua garatu dute, Bilboko San Frantzisko auzoko kultur aniztasuna ardatz hartuta. Bestalde, Landa-ko Guneak *Ihes egitea zilegi balitz. Ihes egitea eskubidea* da izeneko argazki erakusketa hartuko du maiatzaren 25era bitartean.

Bihar, egun guztian zehar hainbat tailer egongo da: 14:30ean janari eta edari afrikarrak Lan-

dako Gunean, eta 20:00etatik aurrera Afrika Bibang eta Denjah Manen kontzertua Andra Marian, besteak beste.

Udalagaz batera, hainbat dira eguna antolatzen dabilten elkarteak. Honako hauek: Mlomp, Ghana La Paz Amor Lagunen Elkartea, Senegal Fraternidad Sen Euskadi Laguntza Elkartea, Dahiria Sope Naby, Urokal Sindolaal, Wafakay Elkartea, Ekua-tore Gineako Ceiba Kultur Elkartea, Afrikaldia, Arrupe Elkartea, Batudamak Batiukada, Boluntario linguistikoak - hizkuntza boluntariotza, Durangoko Denboraren Bankua, Inurri Eskaut, Jaizale Txistulari Elkartea eta Kristintin Dantza Taldea.

Etxeko lanaren araudiari buruzko berbaldia Durangon

Hilaren 30ean, etxeko langileen kontratazioari eta lan baliabideei buruzko zalantzak argituko dituzte

Ekaitz Herrera DURANGO

Maiatzaren 30ean, Durangoko Udaleko Immigrazio Sailak etxeko lanaren araudiaz informatzeko saioa egingo du. Jardunaldia 18:00etan izango da, Elkartegian. Oscar Vellisca abo-

katu eta lan-zuzenbidean adituak emango du berbaldia. Durangoko Udalak azaldu duenez, saioaren helburua herritarrei —bai enplegatzaileei, bai arlo horretan lan egiten dutenei— etxeko ingurunean lan-harremanak

arautzen dituzten lege-alderdiei buruzko informazio argia eta eguneratua eskaintzea da. Saioan hainbat gai jorratuko dute, hala nola kontratuaren forma eta iraupena, kontratu-ereduak, ordainsariak, lanaldia, oporrak, baimenak eta Gizarte Segurantzaren alta ematea. Bertaratzea doakoa da eta ez da aurretiaz izena eman behar. Udalak berbaldira joan eta etxeko lanaren eskubideak eta betebeharrak ezagutzera gonbidatu ditu herritarrek.

Durangon patinete elektrikoek erabilera arautzeko kontsulta

Durangoko Udalaren ordenantzak patinete elektrikoak, monopatinak, patinak eta antzeko ibilgailuak arautuko ditu

M.Z. DURANGO

Durangoko Udalak kontsulta publiko bat ipini du martxan, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen (MPI) erabilera arautuko duen udal ordenantza bat egin aurretik herritarren iritzia jasotzeko. Ordenantzak patinete elektrikoak, monopatinak, patinak eta antzeko ibilgailuak arautuko ditu.

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, herrian horrelako ibilgailuen erabilera geroago eta handiagoa delako eta segurtasun arazoak eta bizikidetzak gatazkak sortzen dabiltzalako hasi dute ekimen hau. Baina ordenantza egin aurretik herritarren iritzia jakin gura dute, eta, horretarako, kontsulta publikoa egiten dabilta. Maiatzaren 31ra bitartean, durangarrekin euren iritzia eman ahal izango



Patinetea. DURANGOKO UDALA

dute partehartu.durango.eus webgunean sartuta.

Behin parte-hartze epea amaituta, udalak herritarren ekarpenak aztertuko ditu eta ondorioekin txosten bat argitaratuko dute.

Umeentzako sormen, jolas eta lankidetzak saioak San Fauston

Domekan, 'Biblioteka egin' eta 'Biblioteka edonon' ekintzak izango dituzte 12 urtera artekoentzat auzoan

Ekaitz Herrera DURANGO

Bizenta Mogel Bibliotekak ekintza bi eramango ditu, domekan, San Fausto auzora: 'Biblioteka egin' eta 'Biblioteka edonon'. Umeei zuzenduriko ekintzak izango dira biak, lankidetzak-jolasen bitartez umeen sormena sustatzea helburu dutenak. Lehenengo, 'Biblioteka egin', 7tik 12 urtera arteko umeentzat izango da eta 10:30etik 11:30era egingo dute. Tailer horretan, umeek ingurune atsegin eta kolektibo bat eraiki ahal izango dute askotariko eraikuntza materialak erabilita. Udalak azaldu duenez, sortuko duten eremu hori proposa izango da jolasteko, irakurtzeko, sortzeko zein atsedean hartzeko. Ekintzan parte hartzeko ezinbestekoa da izena aurretiaz ematea. Inskripzioak www.durango.eus/biblioteka-egin atarian egin behar dira.

Bigarren ekintza, 'Biblioteka edonon', 2tik 12 urtera arteko umeentzat izango da eta 11:30etik 13:30era egingo dute. Parte hartzaileek "elkarregaz jolasteko, sortzeko eta esperimentatzeko aukera izango dute", udalak iragarri duenez. Kasu horretan ez da izen ematerik egin behar, irakurzaletasuna, lankidetzak eta sormena bultzatzea dute helburu. Era berean, ekintzak San Faustoko auzotarren komunitatea saretzeko baliagarria izango direlakoan dago udala.

UMEEK INGURUNE ATSEGINAK SORTUKO DITUZTE, IRAKURTZEKO ZEIN ATSEDEN HARTZEKO



Tabirako igerilekuak.

Tabirako aldagelak "proiekturik barik" daudela dio EH Bilduk

"Badator uda sasoia eta durangarrek barrakoiekin konformatu beharko dute aurten ere", esan dute

Ekaitz Herrera DURANGO
Durangoko EH Bilduk Tabirako igerilekuen egoera kritikatu du, "aldagela berrietarako proiekturik barik" jarraitzen dutela eta. Hori dela eta, aurtengo udan ere herritarrek "barrakoiekin" konformatu beharko dutela esan dute. Subiranisten iritziz, egoera hori udal gobernu taldearen "aurreikuspen eta herritarrekiko konpromiso faltaren erakusgarri kezagarria" da: "2024ko urrian, Durangoko alkate Mireia Elkoroiribek jendaurrean iragarri zuen udako igerilekuetako al-

dagela berriak 2026ko udarako prest egongo zirela. Hala ere, zazpi hilabete geroago, obrak ez hasteaz gainera, proiektua lizitatu ere ez da egin", kritika-tu du EH Bilduk.
Era berean, "txosten tekniko berri baten arabera" aldagela zaharrak eta erabilera anitzeko kantxa hartzen zituen eraikina "oso txarto" daudela jakinarazi du EH Bilduk. "Denbora aurre-ra doa eta benetako aurrerape-nak urriak dira. Herritarrek azalpen argiak eta konpromiso zehatz eta errealistak merezi dituzte", adierazi du koalizioak.

LABUR-LABUR

Umeentzako puzgarriak igerilekuan
Zapatuan, hilak 24, uretako puzgarriak egongo dira Landako II kiroldegian. Setik 12 urtera arteko umeek parte hartu ahal izango dute ekintzan, 16:30etik 19:30era. Jardueran inskribatzeko, interesdunek Durango Kirolak-en atarira edo kiroldegiko harrerara jo behar dute. Jarduera osoan zehar nahitaezkoa izango da haurrak pertsona heldu baten ardurapean egotea.

'Kafegunea' antolatu dute adinekoentzat
Durangoko Udaleko Adinekoen Sailak *Kafegunea* ipini du martxan, udalerriko adinekoek batzeko eta sozializatzeko aukera emateko. Ekintza Adinekoen Zentroko kafetegian egingo dute, eguenero, 17:00etatik 18:30era. Lagunkide programako boluntario baten gidaritzapean egingo dute ekintza.

10.000 bonu merkataritza bultzatzeko
Durangoko Udalak, Dendak Bai elkarteagaz elkarlanean, bonu kanpaina berria ipini du martxan. 10.000 bonu ipini dituzte herritarren eskura. Udalak 50.000 euroko ekarpena egin dio kanpainari. Herritar bakoitzak lau bonu erabili ahalko ditu, gehienez.

Zaldibarren Blanca Onaindia omenduko dute

Zaldibarko Udalak herriko lehenengo emakume alkatea omenduko du ekainaren 14an. Ekitaldia udaletxeko plazan izango dela iragarri dute, 12:00etan. Eneritz Azpitarte alkateak ekitaldira joatera deitu ditu herritar guztiak

Ekaitz Herrera ZALDIBAR
Ekainaren 18an, 30 urte beteko dira Zaldibarren emakume bat alkate izendatu zutela lehenengoz; Blanca Onaindia Garitaonandia izan zen herriko lehenengo emakume alkatea. Hori dela eta, udalak omenaldia egingo dio, Onaindiak mugarria ezarri zuelako ordura arte gizonetzkoena bakarrik izandako aginte postuan. Gainera, hurrengo emakume alkateentzako bidea zabaldu zuen, bere agintalditik gaurdaino beste hiru emakume izan dira-eta alkatetzan: Idoia Mendiolagaray, Arantza Baigorri eta Eneritz Azpitarte.

Onaindia 1995etik 1999ra izan zen Zaldibarko alkatea. "Hasieran beldur moduko bat izan nuen, baina ez emakume izateagaitik, lan hori ezagutzen ez nuelako baino. Gerora, herritarrekin izandako hartu-eman oso polita izan zen. Oso oroitzapen onak ditut", gogoratu du Onaindiak. Era berean, Eneritz Azpitarte gaur egungo alkateak 1995etik honako bilakae-



Blanca Onaindia eta Eneritz Azpitarte. ZALDIBARKO UDALA

ra nabarmendu du: "Legealdi hartan bederatzi gizonetako eta emakumezko bik osatzen zuten Zaldibarko udalbatza. Gaur egun, argazkia alderantzizkoa da: bederatzi emakumezko eta gizonetako bi gaude udalbatzan. Datu esanguratsua da, emakumeok bide bat egin dugulako, nahiz eta oraindi-

no asko dugun egiteko gizarteko hainbat sektoretan". Onaindiari 1995ean zabaldutako bidea eskertzeko, Zaldibarko Udalak omenaldia egingo dio ekainaren 14an. Ekitaldia udaletxeko plazan izango da, 12:00etan. Azpitarte alkateak ekitaldira joatera deitu ditu herritar-tarrak.



TRUMOITTE KULTUR ELKARTEA

Garaiko umeen ortua, prest

Eguraldia lagun, Garaiko umeen ortua inauguratu zuten domekan herrigunean, atxikitako etxeen atzealdeko eremuan. Lehenengo, Ana De la Maza ekoizle garaitarrak ortuaren gorabeherei buruzko azalpenak eman zizkien umei. Gero, denek elkarregaz, txori-

maloa ipini, intsektuentzako hotela jarri eta lehenengo ortuariak erein zituzten: kalabaza eta krispetata-rako artoa. Trumoitte kultur elkarteko kideek balorazio bikaina egin dute: "Umeek itzelean pasatu zuten eta ortua polit-polit geratu da".



Mahai berdea Izurtzako terrazan.

Mahai berdeak Izurtzan Euskaraldiko egunetan

Izurtzan ere bat egin dute Euskaraldiagaz. Herriko tabernara doanak hiru mahai oihai berdeekin apainduta aurkituko ditu. Ahobizi eta belarriprest direnei prestaturiko tokiak dira, euskararen erabilera aktibatze ariketa erraldoiak irauten duen egunetarako

Ekaineko Albokan Rollak prest du egitarau osoa

Mañarian Albokan Rolla jaia ospatuko dute ekainaren 14an, eta antolatzaileek publiko egin dute egun horretarako egitaraua; musika kontzertuez gainera, egun osoko jaiak beste osagai batzuk ere izango ditu: herri kirolak, bazkari herrikoia...

J.D. MAÑARIA

Hiru aste falta dira Mañarian Albokan Rolla jaia ospatzeko, eta antolatzaileek publiko egin dute egun horretarako prestaturiko egitaraua.

Egun osorako jaia antolatu dute, goizetik gauera. Albokari eta trikitilarien musika doinuekin hasiko dute eguna, 10:30ean. Ondoren, herri kirol erakustaldiak egongo dira, 13:00etan. Jarraian herri bazkarian batu dira: paella, postrea eta kafea. Txartelak Herriko Tabernan eskuratu daitezke, ekainaren 8ra arte (10 euro). Bazkalostean, 17:00etan, pala eta pilota txapelketako finalak jokatu dituzte

Mañariko pilotalekuan. Jaialdia hainbat kontzertugaz errematatuko dute. 20:00etatik aurrera, Les Lullies, Reder eta Sermond's

taldeak igoko dira oholtzara. Azken talde hori bueltan da sei urteren ondoren. Gero, KSKA Seletorak ipiniko du musika.



Herri bazkarirako txartelak Herriko Tabernan eskuratu daitezke, ekainaren 8ra arte.

Joseba Derteano (IZURTZA/ ZALDIBAR) Izurtzan ere bat egin dute Euskaraldiagaz. Udalak eta Herriko tabernak *Euskararen aldeko mahai berdeak* izeneko ekimena hasi dute euskararen erabilera aktibatze ariketa erraldoiak irauten duen egunetarako.

Tabernara doanak hiru mahai oihai berdeekin apainduta aurkituko ditu; bi terrazan eta bat barruan. Mahai bakoitzean ipini duten azalpen orriak ondo deskribatzen du ekimenaren helburua: "Izurtzan ere eragin gura dugu hizkuntza ohituretan. Horregaitik, mahai berdea ipini dugu, ahobizi eta belarriprest direnak mahai horretara jesaritzeko eta euskaraz egiteko". Beraz, mahai berdeak, sinbolismoaz gainera, praktikarako gonbidapen argia dira. Euskaraldia aprobeztatzuz, espazio publikoetan ere hizkuntza hautuak ikusgarri bihurtzea da asmoa. Gainera, euskaraz aritzeak "saria" izango du. "Galdetu barran eta ikusiko duzu", irakurri daiteke.

Aurkezpene Zaldibarren

Zaldibarren ere hainbat dira Euskaraldiko azken txanpara

begira antolaturiko ekitaldiak. Arratsalde honetan, herriko kirol elkarteetan euskara sustatzeko dekalogoak aurkeztuko dute. Idaleko euskara zerbitzuko eta Zaldia kirol elkarteak zein Biak Bat futbol taldeko kideek egingo dute aurkezpene, 18:30ean, plazan. Hori amaituta, herritarrek euskaraz kantatzeko eta poteatzeko tarteak izango dute Berakatz taldea lagun (19:00etan).

ANBOTOren lehiaketa

Orain astebetetik hona, Euskaraldiari loturiko hamaika ekimen egin da herririk herri, eta domekara bitartean ere beste hainbeste gertatuko da. ANBOTOk ere bere aletxoak ipini du, *anboto.org* webgunean martxan ipini duen galdera-erantzunen lehiaketa batez. Galderak webguneko 'Euskaraldia lehiaketa' atalean daude. Dagoeneko parte hartu dutenen behin-behineko sailkapen bat ere kontsultatu daiteke. Lehiaketan parte hartzeko azken eguna maiatzaren 25a da. Irabazleak produktuz beteriko otzara bat irabaziko du.

Palumbo musikari argentinarrek kontzertua emango du Arrazolan

Amillena Bentak Silvia Palumbo kantautore argentinarren kontzertua hartuko du, gaur, 20:30ean

J.D. ATXONDO

Urtean zehar askotariko ekimenak antolatzen dituzte Arrazolak Amillena Bentan. Oraingoan kontzertu bat egongo da gozagai, Silvia Palumbok barikuan emango duena, 20:30ean. Musikari argentinarra bira bat egiten dabil Euskadin, eta bira horren barruan bisitatuko du Atxondo.

Palumbok hainbat disko kaleratu du 2002tik hona. Bere azken lanak *Noviembre, fuego y aire* du izena; 2023an argitaratu zuen.

Musikari legez duen ibilbideaz gainera, feminista eta LGTBI aktibista legez duen konpromisoagaitik ere nabarmentzen da. Arlo horietan egin duen ekarpena ere zabala da. Esaterako, 1990ean, Las Lunas y Las Otras taldea sortu zuen beste emakume batzuekin batera. Talde horren erreferente izan zen eta



Silvia Palumbo, kontzertuan. WIKIPEDIA

Argentinako emakume lesbianen lehenengo talde egonkorra bihurtu zen. Lesbianen lehenengo jardunaldi nazionalak ere antolatu zituen. Horrez gainera, lan handia egindakoa da danbor feministen taldeak sortzen.

Zuok gazteentzako parte hartze ekimena martxan jarri dute

Zornotzako Udalak martxan jarri du Zuok ekimena, gazteen artean parte hartzea sustatzeko; 16-24 urte bitarteko herriko gazteentzako lan-plotsa ere sortu dute

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak Zuok gazteentzako parte hartze ekimena martxan jarri du beste urte batez. Horrez gainera, aurten, lehenengoz 16-24 urte bitarteko gazteentzako lan plotsa sortu du. Udalaren asmoa, eurak antolatutako ekintzetan lana eskainiz, gazteei lehen lan-esperientzietan trebatzeko aukera eskaintzea da. "Udaletik lan-munduan lehen urratsak eman ditzaten aukera errealak eskaini nahi dizkizuegu, gainera, gure

udalerriko kultur eta gizarte bizitzan aktiboki parte hartzen duten bitartean. Gazteen enplegu boltsa eta Zuok ekimena funtsezko tresna dira euren ahotsak entzuteko", azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea. Zuok parte hartze ekimenerako, 18 eta 30 urte bitarteko gazteei egin die deialdia udalak. Hala, ekarpenak jasotzeko, ekainaren 7rako jardunaldi parte hartzailea antolatu dute; 10:00-12:00 bitartean izango da, Zelaieta zentroan.



Amaia Aurrekoetxea zinegotzia eta Ainhoa Salterain alkatea.

Rosa Pajuelok egin du lore eskaintza In Memoriamen

A. M. ZORNOTZA

Urtero legez, maiatzaren 18an In Memoriam ekitaldia egin zuten Zornotzan. Aurten, Rosa Velarde eta alaba Rosa Pajueloren istorioa izan dute ardatz. Hain zuzen ere, Pajuelok berak egin zuen lore eskaintza ekitaldian. Ama-alabak Zornotzako emakumeen kartzelan egon ziren preso lehenengo, eta Saturrarangoan gero. Extremadurakoak ziren sortzez, eta agintari frankistek baldintzapeko askatasuna eman zietenean, amak Zornotzan geratu behar izan zuen.

Ekitaldian hiru belaunaldiren oroimena irudikatu gura izan zuten: ondorioak zuzenean jasan zituztenena, bizitakoaren zeharkako ezagutza izan zutenena eta Espainiako gerraren berri izan dutenena, urruneko zeozer lez ikusi arren.



Pajuelo, erdian, domekako ekitaldian.



lazio 'Zornotzan kantuz'.

'Zornotzan kantuz'-en edizio berri bat, maiatzaren 30ean

Maiatzaren 30ean, 'Zornotzan kantuz' ekimenaren laugarren edizioa egingo dute, 19:30ean hasita

Aritz Maldonado ZORNOTZA

Zornotzan kantuz herri ekimenaren edizio berri bat egingo dute zapatuan, hilak 30; laugarrena, hain zuzen ere. Ekimen honi eskerrak, Zornotzako kaleetan zehar euskal kantak entzungo dira. 19:30ean ekingo diote, Venecia tabernatik. Antolatzaileek banaturiko esku-liburuak eskuetan hartuta, iluntzeko poteoa alaituko dute, kantuan. Aurten, berezitasun legez, hiru zuzendarik parte hartuko dutela azaldu dute antolatzaileek. "Zuzendari batek zuzenduko du, eta besteok abes-

tu egingo dugu", azaldu dute antolatzaileek. 19:30ean hasita, ordu eta erdian abestuko dute. "21:00-21:15 aldera amaituko dugula uste dugu, eta sei bat gel-diune egingo ditugula aurreikusten dugu", argitu dute. Hogei bat abesti abestuko dituzte, eta esku-liburuak lagun izango dituzten arren, abestirik gehienak ezagunak izateak errazago egingo du. "Besteak beste, *Erribera, Txikia, Aitormena, Lepoan hartu, Furra furra, Ikusi mendizaleak* eta *Aldapeko* abestuko ditugu, ezagun-ezagunak guztiak", gaineratu dute.

'Geuria ebali zeinke' ekimena martxan ipini dute Elorriko

Elorriko Udalak eta hainbat komertzio bat egin dute telefonoaren erabilera arduratsuaren alde Altzau Burua taldeak martxan ipini duen kanpainagaz

A. M. ELORRIO

Elorriko Altzau Burua taldeak, bertako merkatariekin eta udalagaz elkarlanean, telefonoaren erabileraren inguruko kontzientziazio kanpaina ipini du martxan: 'Geuria ebali zeinke'. Kanpainara batu diren komertzioetan eta udal eraikinetan pegatina bat ipini dute atarrietan. Bertan jakinarazten dute herriarrek hango telefonoa erabili dezaketela premia dutenean.



Kanpainagaz bat egin duten hainbat herritar.

Egitarau oparoa Berrizen, harrotasun hilabetearen harira

Udaleko Berdintasun Sailak LGTBI+ harrotasunaren inguruko jarduera programa oso bat prestatu du

A. M. BERRIZ

Berrizko Udaleko Berdintasun Sailak LGTBI+ harrotasunaren aldeko ekintza sorta antolatu du ekainaren 28ra bitartean egiteko, udalerrin "askotarikoagoa, errespetuzkoagoa eta inklusi-boagoa" eraikitzeke helburuagaz. Maiatzaren 28an izango da hurrengo ekintza; Leire Ascargorta emagin abadiñarrak *Gure gorputz eta sexualitate anitzak ezagutzen* berbaldea emango du; bestalde, ekainaren 4an, *Klimaterio edo menopausia* hitzaldia emango du. Berbaldi biak 18:00-

19:30 bitartean izango dira, kultur etxeko atzeko aldean. Harrotasun hilabetea borobiltzeko, ekainaren 28an LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Egunagaz eta sexu askapenaren aldeko egunagaz bat egingo du udalak. Horrez gainera, hilabete honetan LGTBI+ bandera ipiniko dute udaletxean, "udalaren konpromisoa adierazteko". Aurretik, eskulan tailerra eta *Lola* pelikularen emanaldia egon ziren Berrizen, eta udalak LGTBI+fobiaren Aurkako Nazioarteko Egunagaz ere bat egin zuen.

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

MAIATZEKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



Basa take away jatetxeko bowl osasuntsu berri bat opari, gozo jateko zure burua zainduz.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



TAO Trañaetxoste osora zabalduko dute

Abadiñoko Udalak ohar bidez azaldu duenez, aurreikuspen guztien arabera ekainaren 9an ipiniko dute martxan aparkaleku sistema berria. Data hurbildu ahala, herritarrek euren etxean jasoko dute pegatina eta beharrezko informazio guztia

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Urte eta erdiko lanketa egin eta gero, eta azken moldaketa batzuk eginda, aparkaleku sistemaren proba pilotua ekainaren 9an hasiko da martxan Traña-Matienan. Udalak azaldu duenez, auzoko ostalari eta merkatariekin elkar-lanean landu dute proba pilotuaren diseinua. Guztira, bost batzar egin dituzte eurekin.

Hori horrela, auzoko komertzio eta ostalariei bultzada emateko asmoz, TAO sistema Zubibitarte kalean ezartzeaz gainera Trañaetxoste kalera zabaltzea ere erabaki dutela jakinarazi dute. Beraz, Trañabarreneko eremuaz gainera TAO sistema Zubibitarten eta Trañaetxosten ere ipiniko dute, Zubibitarte eta Txinurrisolo artean, hain zuzen ere; gehienez, ordubetez aparkatu ahal izango da doan. Eremu honek kolore urdina izango du. Horrez gainera, gehienez ordu bati aparkatzeko eremu gehigarri bat ere ipiniko dute Trañaetxosten, Txinurrisolotik eskoletara bitartean. Hau ere doakoa izango da eta kolore berdea izango du.

Bestalde, TAO sistema indarrean ez dagoen orduetan, egoiliarrek bakarrik aparkatu ahal izango dute eremu horietan. Hori dela eta, kolore gorriaz ere marrotuta egongo dira.



Trañaetxoste kalea.

Berritasun modura, behin makinan matrikula erregistratuta ez da derrigorra izango autoan papera ipintzea.

EAJk alegazioak

Abadiñoko EAJk jakinarazi du zortzi alegazio ipini dizkiola trafiko ordenantza berri honi. Hauek dira horietariko batzuk: TAO gunek zabaltzea, doan aparkatzeko denbora luzatzea, eta Arzubian parking bertikala egiteko proiektua aztertzea "Gure iritziz, tokiko gobernuak ez du bertoko merkatariekin partai-

detza prozesurik bultzatu ordenantza hau idatzi baino lehenago. Traña-Matiena auzo bizia da eta ekonomikoki dinamikoa izaten jarraitzeko, merkataritza sare hurbila behar du, irisgarria", gaineratu dute.

**TAO SISTEMA
INDARREAN
EZ DAGOENEAN,
EGOILIARREK BAINO
EZINGO DUTE APARKATU**

Andra Mari jaietan Alkate Txiki izateko izen ematea, martxan

Lehen Hezkuntzako gazteei zuzenduta dago; izena ekainaren 10a baino lehenago egin behar da

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak jakinarazi duenez, abuztuaren ospatuko diren Andra Mari jaietan Alkate Txiki izan gura duten herriko haurrek dagoeneko aukera dute izena emateko. "Ekimen sinboliko honek

jaietako egitarauan protagonismo berezia hartzeko aukera ematen die herriko gazteenei", azaldu dute Mallabiko Udaleko ordezkariak. Ekimen honen bitartez, gaztetxoek herriko bizitza sozial eta komunitarioan parte hartzea

bultzatzen da, eta, gainera, jaiak gertutik bizitzeko aukera eskaintzen zaie.

Lehen Hezkuntzako mallabitarrek dute izena emateko aukera, bakarka zein bikoteka. Horretarako eskabidea Mallabiko eskolan aurkeztu behar da, ekainaren 10a baino lehenago. "Izena emateko gonbidapena egiten diegu herriko gazteei. Esperientzia honek festa bizitzeko modu berezi eta hurbila eskaintzen die, herriko tradizioaren parte aktibo izanik", gaineratu du udalak.

Sei txakur intoxikatu direla salatu dute Iurretan

Maspe kaleko eta inguruetak bizilagunek gertatutakoaren berri eman dute udalean eta Ertzaintzan, eta inguruan arratoiak hiltzeko edo antzeko beste substantziarik erabili den ikertzeko eskatu dute. Udalak esan du gertatutakoa argitzeko lan egingo duela

A. Basauri IURRETA

Iurretako Maspe kaleko atari berrien inguruetan eta inguruko berdeguneetan paseoa ibili ondoren, sei txakurrek kolitis hemorragikoa izan dutela salatu dute bertako eta inguruetak bizilagunek. Intoxikazioak apirilaren amaieran eta maiatzean zehar gertatu dira, argitu dutenez. Udalean eta Ertzaintzan horren berri eman dute, eta inguruan arratoiak hiltzeko edo antzeko beste substantziarik erabili den ikertzeko eskatu dute.

Horrelako produktuak erabiliz gero, aurretiaz horretaz informatzeko eskatu dute bizilagunek. "Ekintza instituzionala izan ez bada, baliteke partikularren batek pestizidak edo produktu toxikoren bat belarretan bota izana, animaliak kaltetzeko asmoz", argitu dute. Txakurretan batzuk ospitale-ratu dituztela esan dute, "gonbitoak eta beherako hemorragiko etengabeak" zituztelako. Udalari "kontzientzia hartzea" eskatu diote,



Maspe kaleko atari berrien inguruko argazkia.

eta ibaiaren inguruko berdegunea garbi mantentzea eskatu.

Udalak esan du enpresa bat kontratatuta daukala izurriteak kontrolatzeko zerbitzua eramateko, eta enpresa horrek ez duela "beste animalia batzuei kalte egin

diezaiekeen azaleko produktu toxikorik erabiltzen, legez debekatuta dagoelako". Gaineratu du gertatutakoa argitzeko lan egingo duela, eta kasua Ertzaintzaren esku ipiniko duela "behar den guztian laguntzeko".



Arrozen Eguna. ARTXIBOA

Iurretan egitarau zabala prestatu dute Arrozen Egunerako

Jaialdia Askondoko aterpean izango da, 11:00etan. Bazkarirako txartelak hiru euroan daude salgai

A.B. IURRETA

Zapatuan Arrozen Eguna ospatuko dute Iurretan. Kultur Aniztasunaren Astearen eskutik antolatutako jaialdia da eta 11:00etan isiotuko dituzte sute-giak arrozak prestatzeko Askondoko aterpean. Hainbat ekitaldi prestatu dute eguna borobiltzeko.

11:30ean tea eta pastak dastatuko dituzte, eta 13:00etan arrozen dastatzea hasiko da. Tartean, umeentzako tailerrak egongo dira. 14:30ean bazkaltzeko elkartuko dira. Kafearen ondoren, arrozen lehiaketako sariak eman-

go dituzte. Dantza erakustaldiak osatuko du egitaraua, 17:00etan.

Txartelak guztien eskura

Lehenengoz, bazkarirako txartelak salgai ipini dituzte, hiru euroan. Gaur da azken eguna eskuratzeko, Nagusien Zentroan eta Ibarretxe kultur etxean. Lehiaketako arrozak jateko txartelak ere hartu daitezke, euro biau.

Maiatzaren 29an, Andrés Celisek eta Liliana Ulchur-ek (Jorge Adolfo Freyter Romero) *Kolonbiako erbestearen kausak eta ondorioak Euskal Herrian* berbaldia emango dute, 19:00etan, kultur etxean.



IURRETA LHI

Iurreklec, hirugarren Euskelec-en

A.B. IURRETA

Iurreta LHiko ikasleak hirugarren postuan sailkatu dira Gasteizen egin den VIII. Euskelec txapelketan. Iurreklec taldeak proiektu metodologikorik onenaren saria eta 1. faseko proiektu garapenaren saria ere ekarri dituzte etxera.



IURRETA LHI

EuskoKills-eko 4 domina Iurretara

A.B. IURRETA

Iurreta LHiko automojioko lau ikaslek urrezko hiru domina eta brontzezko bat lortu dituzte EuskoSkills 2025 lehiaketan. Joseba Elosegik, June Azumendik eta Julen Aldanak ekarriko dituzte urrezko dominak, eta Maui Mandalunizek brontzezkoa.

Udabarri Kontzertua emango dute, Otxandion, zapatuan

A.B. OTXANDIO

Otxandioko Oihandi Abesbatzak, Usansolo Orfeoak eta Aiarako Bleibet koralak Udabarri Kontzertua emango dute, zapatuan, Santa Marina elizan. Abesbatzen Elkartek antolatzen duen XLIV. Udabarriko Kontzertuen barruan egingo da emanaldia eta 20:00etan hasiko da.

Ekimenak BBK Fundazioaren eta Bizkaiko Aldundiaren laguntza du eta 59 abesbatzek parte hartuko dute, 19 taldetan banatuta. Zornotzan ere antolatuko dute kontzertua. Herriko Abeskimu eta Zornoza abesbatzek, eta Goredolako Iasiko Ama koralak parte hartuko dute, Zornotza Aretoan, 19:00etan.

Ikasleen ilustrazioen erakusketa

Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuko Batxilergo artistikoko lehenengo mailago ikasleek ilustrazioak sortu dituzte Wikipediarako, Wikiemakumeak proiektuaren proposamenari erantzunez. Sortutako lanak datorren aste osoan zehar ikusgai egongo dira San Agustin Kultur Guneko hallean.



DURANGALDEA ASTEON

Osasun mentalaren gaineko berbaldiak

MALLABIA Osasun Mentaleko Eskoletatik doako prestakuntza berbaldiak antolatu dituzte Mallabian. Hitzaldien helburua osasun hezkuntza sustatzea da, eta, horretarako, berbaldi bi antolatu dituzte. Bata gaur izango da, maiatzak 23, 20:00etan, Kontzejuzarren. Hau herritarrentzat izango da. Bestea, maiatzaren 28an, 19:00etan, zaintzaileentzat. Hau ere Kontzejuzarren izango da.

Zapatuan mendi irteera egingo dute Arietzura

BERRIZ Berbalagunek, Amaraune Mendi Taldeagaz batera, irteera antolatu du biharko, maiatzak 24. Arietzu tontorrera izango da irteera, eta Berrizko, Zaldibarko eta Mallabiko mugak zeharkatuko dituzte. Guztira, 10 kilometroko ibilbidea egingo dute. 09:30ean ipini dute ordua, Elizondo plazan. Izena eman behar da parte hartzeko, 639 400 786 zenbakira idatzita.

Zubizabala auzoko jolasgunea hobetuko dute

ZORNOTZA Zornotzako Udalak hobekuntza lanak egingo ditu Zubizabala auzoko jolasgunean eta auzoko beste gunek batzuetan; besteak beste, Sabino Arana kaleko tren geltokiko sarbideko barandan eta hilerri inguruan. Bestetik, haurrentzako jolasgunean zabu berri bi ipiniko dituzte eta segurtasunerako 120 metro koadroko lur azpiegitura berriztuko dute.



Garaitarrek San Isidro eguneko bazkaria egin dute

GARAI San Isidro ez da Garaiko nagusien elkarteari izena ematen dion santua, ezta udalerriko jaieguna ere. Baina herriko nagusiek aspaldikoa dute maiatzaren 15ean batu eta bazkaltzeko ohitura. Elkarteko 41 kide batu ziren, Herriko Tabernan. Bazkalostean, Kantulagun egitasmoko entseguak egin zuten. 15 bat euskal kanta prestatu zituzten.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarre edo taldeko iritzia kide baten izenaren sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



POLITIKAN
MARKEL LARRUSKAIN
EH BILDU

Nola mugitu

Mugikortasun eredu jasangarri bat eraikitzeko, Zaha Hadidek diseinatutako tren estazio fantasma bat eta 24 bizikleta pila-tzeko Diputazioko kristalezko kubo bat baino zerbait gehiago beharko da.

Oinezkoentzako bideak, autobus eta tren zerbitzuak, bizikletentzako bidegorri eta aparkalekuak, eta kotxe partikularrentzako parkingak kontuan izango dituen plan integral bat egin behar da urgentziaz.

Azken hamarkadetan asko aldatu da Durangon ibiltzeko modua, baita Durangora etortzekoa ere. Positiboak diren aldaketak egon dira; oinezkoentzako gunek eraiki ditugu, kotxeak eta kamioiak ezin dira Durangoko erdigunetik pasatu eta oinezkoek lehentasuna dute kale askotan. Bizikletan mugitzeko ohitura ere badoa apurka-apurka bidea egiten, baina hau bultzatzeko neurriak nahi baino geldoago eta planifikaziorik gabe ari dira garatzen. Garraio publikoaren azpiegiturak ere ez dira eraiki erabiltzaileen beharrezan arabera, tren estazioa da adibide garbiena.

Bizi kalitatea hobetzeko eta mugikortasun jasangarriago bat eraikitzeko, askotariko azpiegitura eta garraio moten arteko sinergiak sortu behar dira. Bide honetan, erabakiak modu isolatuan hartzeak ez du ezer onik ekarriko, Durangoko kale ederenetako bat zatartzea bakarrik.

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta
Miren Abasolo Txabarri eta Xabier Lazkano Baseta.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano
Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala
eta Irati Otadui Maiztegi.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.





foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

LAGUNTZAILEAK




EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA

Dekorazioa eta eraikuntza

gehigarria 2025



Senttix

Franzisko Ibarra 8,
DURANGO
Tel.: 944 07 64 22

14
logela

16
komuna

18
egongela

20-21
sukaldea



Dekorazioa eta eraberritzeak

Hurrengo orrialde hauetan dekorazioan eta eraberritzeetan profesionalak diren gremioetako aukerak eskaintzen dizkizugu, diseinu aldaketa txiki batetik hasita, zerotik hasitako eraikuntza batera

Zaharberritze lanak buruko min galanta izaten dira martxan ipintzen dituzten familientzat. Horregatik, zeregin hauek profesionalen esku uztea ezinbestekoa da, merkea garesti irten ez dakigun. Hemen, Durangaldeko adituen hainbat proposamen duzue eraberritze zein dekorazio arloan bide onetik ez irteteko.

Logela, egongela, komun zein sukaldean edozein aldaketa egin aurretik, gaia ondo ezagutzen duten adituen eskuetan jartzea ezinbestekoa da egitera goazen aldaketa horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko. Durangaldean badaude horretarako profesionalak, zure beharretara egokituko diren zerbitzu ezin hobea eskainiko dizutenak.

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia



www.leike.eus · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com



www.invexvertical.com
info@invexvertical.com
637 824 036



**AROTZERIA
OROKORREAN**



Aratz Salazar Bilbao

Tel.: 647 21 07 88 · arotxin@gmail.com
ELORRIO Bizkaia

Argia, espazioa eta
ikuspegi paregabeak
dituzten atikoak.

Azken atikoak
SAN ROKE BARRIAN,
Durangon.



- 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

- Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

- Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.



Gimnasioa



Ludoteka




Coworking
gunea



Garaje eta
trastelekua barne

946 462 041
www.sukia.com



Logela

Estiloz beteriko komodek, biltegi lana egiteaz gainera, diseinu aldetik ikutu berezia ematen diote logelari



Logelako dekorazioak giro atsegin eta eroso sortzeko aukera paregabea eskaintzen du. Komoda, bere diseinu eta praktikotasunagaz, ezinbesteko elementua da espazioa antolatzeko, eta, gainera, estilo pertsonala gehitzeko aukera ematen du.

Bestalde, burkoak elementu garrantzitsua dira logelako giroa berotzeko eta konforta handitzeko, kolore eta ehun desberdinekin jolas eginez espazioa bizitzeko eta eroso sentitzeko modua sortzeko.



ALKI

DEKORAZIOA ETA ERREFORMA INTEGRALA

Mikeldi, 6 DURANGO

94 681 38 95 • 679 097 744 • alki@interioresalki.com

www.interioresalki.com



eka 20

arkitektura

Silvia Urrutxi Arkarazo

Tel.: 699.356.607



Mikel Piriz

ALBAÑILERIA

627.251.069
mikelpiriz@gmail.com



JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta guztietako
zaharberitzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A, BERRIZ
Tel./Fax: 946 824 143 • Mug: 658 758 42
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



ETXEDREAMS, historia duen izena

-  Zure produktuak kosturik gabe entregatu eta jartzen ditugu.
-  Aukeratu gehien gustatzen zaizun ordainketa-metodoa
-  Zure ohe zaharra kendu eta birziklatzen dugu
-  Doako finantzaketa TAE % 0 komisorik gabe
-  Etxeko aholkularitza eta "hitzordua" jartzeko aukera.

Koltxonetak - Kanapeak - Oinarriak - Oheburuak - Burkoak - Osagarriak


1985. urtetik AMETSAK SORTZEN

"Atsedena profesionalen esku utzi behar delako"




OHE ARTIKULATUETAN ESPEZIALISTAK

"Atsedena ona izatea da garrantzitsuena"



Komuna

Praktikotasunari eta diseinuari komuneke objektuak erraz gordetzeko biltegioko elementuak gehitu behar zaizkie



Bainugelako dekorazioa moda modan dago azken urteotan, eta azulejuak protagonista bihurtu dira. Zuria da gehien erabiltzen dena, baina ausartagoentzat koloretsuak ere badaude, edo nahasketa erabiltzen dutenak, espazioari freskotasuna eta estiloa emateko. Azulejuak ez dira bakarrik praktikoak garbitzerako orduan. Dekorazio elementuak ere badira, bainugelako itxura modernoa eta erakargarria sortzeko aukera ematen dute eta. Gogoratu komunean objektu mordoak pilatzen dela, eta biltegi lanak egiteko elementuak ere ezinbestekoak dira, diseinuaz gainera.

SUOMI LAGOI

Astolabeitia kalea, 9 - ABADIÑO
Tel.: 94 621 52 84
www.suomi2016.es

MOTA GUZTIETAKO ZERAMIKAK
Aholkularitza pertsonalizatua
Eraikuntzarako materialak

BILTEGIA ETA ERAKUSKETA

BAÑOS ITURGINTZA - BEROGAILUA - GASA IURRETA

Erakusketa eta komuneke osagarien salmenta

Maspe Kalea, 4 - 48215 Iurreta - Tel./ Faxa: 946 202 433
Nico: 644 705 174 - E-maila: b.iurreta@yahoo.es

Mallabiena

ITURGINTZA, GASA, BEROGAILUA, ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrialdea, 6 - 48215 IURRETA
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051
mallabiena@mallabiena.com
www.mallabiena.com

BILTEGIA
UAI Industriagunea, 2 C
48215 IURRETA
Tel.: 946 816 051

ERAKUSKETA DENDA
Plateruen Plaza, 2/g.
48200 DURANGO
Tel.: 946 810 693

suministrosolz@suministrosolz.com
www.suministrosolz.com

oiZ

ITURGINTZA GASA BEROGAILUAK ERAIKUNTZA S.L.

SANEAMENDUA, LOZA, GASA, BEROGAILUAK, BAINUGELARAKO ALTZARIAK

ZURE ETXEA ZURE NEURRIRA EGINDAKO TOKI BIHURTZEN DUGU

ZURE ETXEBIZITZA EDO NEGOZIORAKO KONTZEPTU BERRI BAT

- ERABERRITZE INTEGRALAK
- GELA INDEPENDENTEAK
- OBRA BERRIKO ETXEBIZITZA
- ATARIAK
- NEGOZIOAK
- BULEGOAK
- STANDAK, AZOKAK ETA EKITALDIAK



Egongela



Egongelako dekorazioan oso garrantzitsua da argitasun naturala aprobetxatu ahal izatea. Leiho handiek eta leihoen kokapen egokiak espazioa argiztatu eta aireztatzeko aukera ematen dute, eta horrek giro atsegina eta lasaigarria sortzen du.

Egongelako osagarriek ere argitasuna eman diezaioke espazio bati. Altzarien zein kuxinen

kolore eta testurek, esate baterako, argitasun hori ematen diote espazio bati. Gainera, diseinu aldetik ere egongelak zigilu pertsonala izateko ere balio dute. Erosotasuna izan behar da espazio honen ezaugarri nagusia, eta, hortik aurrera, bakoitzak gustuko dituen elementuekin jolasteko aukera du.



ESKAINTZA IZARRA

Sofa eraisgarria +
135 x 190 zm-ko koltxoi
biskoelastikoa.



395 €
(33 € hilabetea)

12 hilabete
interesik
gabe

Eramatea, muntatzea eta altzari zaharrak kentzea DOAN

**Colchonerías
Bengoa**

www.colchoneriasbengoa.com
info@colchoneriasbengoa.com

Fra Juan Zumarraga, 19 (Durango) - 944 650 859
San Pedro, 35 ezk. Ixerango (Zornotza) - 946 855 662

jazz solutions

Durangoko Plateruen Plaza, 12 bajo - Durango

☎ 946 215 964

lizentziak, proiektuak
eta obraren zuzendaritza

barne diseinua

kudeaketa bisuala

lan guneak

jazzsolutions.es



Asier Abendibar
635 74 84 65

www.carpinteriaaterpe.com

Ander Maiztegi
655 73 75 51



Ane Fernandez de Retana, Sentix eta Famaliving Durango dendako arduraduna.

Urtebete egin duzue Senttix atsedeen-sistemak eskaintzen: nola baloratzen duzue publikoaren erantzuna 365 egun hauetan?

Etengabeko bilakaera izan duen urtea izan da: oso pozik gaude, pertsona askok pozik daudela adierazi digutelako, kalitate-prezio erlazio ona duen atsedenerako espazio bat aurkitzeko zailtasunak zituztelako.

Gero eta pertsona gehiagok dakigu garrantzitsua dela koltxoi egoki batean atsedean hartzea. Zer esango zenieke egungo koltxoia berritzea baloratzen ari direnei?

Batez ere, kontuan har ditzatela beren beharrianak: irmotasuna, nukleoa, materialak... Aholkularitza funtsezkoa da koltxoi bat aukeratzeko, atsedean hartzeko eta erabat berrituta esnatzeko. Gure bizitzaren % 25 lotan pasatzen dugu.

Koltxoia bakarrik al da garrantzitsua?

Agian hori izango da zatirik garrantzitsuena, baina baita koltxoiaren azpiko oinarria ere, horrek zuzenean eragiten baitie koltxoia eskaintzen dizkigun prestazioei. Horregatik, koltxoia-ri oinarri egokia aukeratuta etekinik handiena aterako dio koltxoia berari.

Zein beste zerbitzu eskaintzen du Senttixek?

Gure zeregin nagusia atsedean on baten aholkularitzan eta espazio horren diseinuan datza, ehunduren, oihalen eta abarren bidez, bezero bakoitzaren gustua asebeteko duena. Oinarri-sortak zabala dugu: oheburuak, almodak eta oheko arropa, horretarako osagarri ezin hobeak direnak.

Kalitatea eta zerbitzua bateratzea da zuen lehentasuna: zerk bereizten zaituzte merkatuko beste aukera batzuetatik?

Jakina. Bezeroari nola, non eta noiz fabrikatzen den badakigun produktu bat eskaini nahi diogu. Dena eskaerapean egiten da, ahalik eta kalitaterik handiena bermatzeko. 7 urteko garrantia eskaintzen dugu, baina gure koltxoia ezin hobeto prestatuta daude haien bizitza baliagarria denbora gehiagoz luzatu ahal izateko. Horretaz guztiaz gozatzea posible dela ziurtatzeko, 12 hilabeterako finantzatzeko dugu, interesik gabe. Bisita gaitzaten eta atsedetik onena hartzeko errezerarik onena ezagutu dezaten animatzen ditugu: LO ONA.

Senttix

Franzisko Ibarra 8, DURANGO | Tel: 944 07 64 22





Sukaldea

Ideiak gura dituzu espazio gutxi duten sukaldeetarako? Argiztapenagaz eta koloreekin jolastuz, zabaltasun sententzia sortu daiteke. Hurrengo pausoa: biltegi egokiak aukeratzea



Pintura guztiak ez dira berdinak. Uno Zero.

MONTÓ
DURANGO MARGOAK

DURANGO MARGOAK
Askatasun Etorbidea, 9
DURANGO
Tel.: 946 40 88 20
www.durangomargoak.com

Bakteriorik gabe • Lizunik gabe
Usainik gabe • Emisiorik gabe

mi casa
cosas de casa

DURANGO
Artakalea 30 behea
656 735 170 / 946 004 664

KOLTZOIAK - OHE OINARRIAK
BURKOAK - OHEKO ARROPA

bed's

Zure atsedenean pentsatzeko sasoia da Bisita gaitzazu!

Aiuitz, 1 - DURANGO Tel.: 944 005 980

www.tabiracolor.com

Urbitearte Ind., 2, Abadiño
Frente a Eroski

94 621 79 11

TABIRA
COLOR

PINTURAK


PINTURA DENDA
Asteleroenetik ostiralera
De 8.00 a 13.15
De 15.00 a 19.00
Zapatuetan
De 9.00 a 13.00

FATIMA

— hogar —

28 urte baino gehiagoko esperientziak bermatzen gaitu

   www.fatimahogar.com



Mota guztietako gortinak

Doako prestaketa tauletan eta frunce-an.



Neurrira egindako alfonbrak

Artilezkoak, akrilikoak, binilikoak eta garbigailuan garbitu daitezkeenak.



Oheko arropa

80tik 200era bitarteko tamaina duten oheak.






Etxean entregatzea
Familia ugarientzako
deskontua
Dendak Bai
txartelaren abantailak
Alfonbrak garbitu
eta zaharberritzea

OUTLET

% 50 eta % 70eko
artilezko alfonbretan
ekainetik uztailera






Sukalderako dugun espazioak guztiz baldintzatuko du bere diseinua. Baina horrek ez du esan gura sukalde txiki batek ezin duenik xarmarik izan. Kasu horretan, elementu guztiak optimizatu behar dira espazioari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko. Sukalde txikia baduzu, zabaltasun sententzia ematen duten kolore argiak erabiltzea komeni da eta argiztapenean bereziki inberti-

tzea. Era berean, biltegietako ekementuak ondo pentsatutako ordena sistema batez antolatu behar dira.

Espazio handien kasuan, aukera gehiago dago diseinua garatzeko. Modan dauden espazio garden eta erabilera anitzekotik eredu tradizionalagoetara heldu arte. Espazioa nabarmentzeko, mugak kentzeak oso emaitza onak ematen ditu.



barne diseinua . ebanisteria
eraberritzeak . proiektuak
izeidecoracion.com

EKAINETIK AURRERA ZATOZ GURE DENDA BARRIRA. Barrenkale 20, Durango



**Gaztelu-Iturri
ARKITEKTURA**

OBRA BERRIA · ERREHABILITAZIOA
BERRIZTATZEA · BARNE DISEINUA

Tel.: 946 509 194 | gatzeluiturri.com | Askatasun-etorbidea, 17



HOME SCHMIDT HOME



Schmidt-en eskutik
etxe osoa

BARRIZTU
BARNE DISEINUA

C.C. Eroski 48220 Abadiño · Tel. 946 526 195
Hartu hitz ordua www.home-design.schmidt





famalive

Durango



Franzisko Ibarra, 8 behea
Tel.: 944 076 422
durango@famalive.com

www.famalive.com



Ane Zabala, Aitor García de Vicuña eta Galder Perez 'Alperrak, tunanteak eta maleanteak' antzezlanean.

"Gaztetxeek eta kultur etxeek antzerkia bizitzeko beste modu bat eskaintzen dute"

ANE ZABALA KAZETARIA ETA ANTZEZLEA

ANTZERKIA Hiru hamarkada baino gehiago dira Ane Zabalak eta Galder Perezek Giltzikaro konpainia sortu zutela; lurretako Abadetxea bisitatuko dute maiatzaren 30ean

Aritz Maldonado IURRETA

Alperrak, tunanteak eta maleanteak da Giltzikaro antzerki konpainiaren azken lana. Gizakien mundura ihes egin duten Pili, Mili eta Willy inurriek bizi dugun garaiari buruzko hausnarketa planteatzen dute.

Nortzuk dira Pili, Mili eta Willy?

Hiru inurri dira, euren inurritegitik hanka egiten dutenak, eta gizakion mundura egiten dute bidaia; artxibategi batera helduko dira, eta bertan ikusiko dute idealizatuta duten gizakien

bizitza hori agian ez dela hain ona, edo behintzat ez uste zutenaren modukoa. Artxibategi horretan gauza desberdinak topatuko dituzte; adibidez, Espainiar Estatuan 'Ley de vagos y maleantes' delakoa indarrean

"KAPITALISMOAK DIO EZER PRODUZITZEN EZ BADUZU EZ DUZULA EZERTARAKO ERE BALIO"

egon zela, eta horregaz zerikusia duten hainbat kontu ere ikusiko dituzte.

Ez da atzera begirako lan bat.

Gaur egungo gaiak jorratzen ditugu. Hiru lagun gara inurriarenak egiten. Hor ere ikusten da txantxa. Inurriak eta lege hau aukeratu dugu, antzerki dokumentala delakoan absurdoagaz jolastea gura genuelako. Antzerki dokumentalak historian arakutzen du eta hori egiteko gogoia genuen. Baina beste hausnarketa bat ere plazaratu gura

genuen. Gaur egun ezer produzitzen ez baduzu, kapitalismoak dio ez duzula ezertarako ere balio. Horregaitik, ezer ez egitearen aldeko aldarria egin gura genuen, ezer ez egitea ez delako zeozter txarra izan behar, eta onuragarria ere izan daiteke pertsonarentzat. Horregaitik ere esaten dugu alferkeriaren apologia ere egiten dugula; alferkeriak oso zentzu txarra du gure artean, eta iritzi hori aldatzea gura dugu.

Ez da erronka makala produktibitateari hainbesteko garrantzia ematen zaion garai honetan alferkeriaren apologia egitea.

Erronka handia da, bai. Azken finean, gu hirurotako bat bera ere ez da alferria. Lan asko egiten dugu, oso produktibistak gara [barrez]. Gure lanak ditugu, antzerkigintza gainera, baina bueno, hortik ere badator gure hausnarketa: zergaitik gara garen modukoak? Agian, aro honetan eta leku honetan jaio garelako. "Pribilegiatuak" gara, baina ez dugu alferkerian egoten ikasi. Hausnarketa egiten dugu eta gauza sakonei buruz berba egiten dugu, umoretik eta absurdotik.

Otsailean estreinatu zenuen. GELDIALDIAREN ONDOREN ITZULI ZARETE. GOGOTSU?

Diru laguntza bat eskatu genuen, Lautan Hiru antzerki jaialdiak ematen duena Euskaltzaindiaren, Zazpikatu gaztetxearen eta Biren bitartez, eta hor testua saritzen da, eta gero aurkezten da obra. Orduan, Lautan Hiru jaialdian aurkeztu genuen, otsailean. Hara estu heldu ginen eta horregaitik erabaki genuen atsedeen apur bat hartzea. Martxoan Gasteizen ere egin genuen beste emanaldi bat. Orain, maiatzean hasi gara biragaz. Joan den astean Plentzian egon ginen, asteon Garaionera goaz, Bilboko Kafe Antzokira, Iruñera... Maiatzean eta ekainean emanaldi batzuk ditugu eta pozik gaude. Horrelakoetan gatx izaten da; antzerki talde txikia gara eta ez daukagu ekoiztetxe baten babesik ez ezer, eta ez gara Sarean sartzen, teatro handien zirkuituan. Beste zir-

"AITOR PLAZAGIZONA DA; ORAIN HASI DA AKTORE, BAINA MUSIKARI LEZ GAUZA ASKO EGIN DITU"

kuitu batean ibiltzen gara, Euskal Herrikoan, eta horren aldeko apustua egiten dugu gainera. Antzezlan hau, gainera, moldagarria da, txikia da, oso gertukoa. Publikoarengandik hurbil egon gura dugu, eta, alde horretatik, edozein tokitara eraman daitekeen pieza da.

Areto desberdinak dira oraingo birakoak. Zuen ibilbidean askotan egon zarete horrelakoetan.

Bai, horrela izan behar du, ezinbestean, gatx delako Sareako teatro ofizialetan sartzea. Gainera, geroago eta antzerki konpainia gehiago dago euskaraz lan egiten dutenak, eta zailtasunak daude denontzat lekua egoteko; euskarazko antzerkian kalitate maila handiko lanak egiten dira eta horregaitik dago beste bide edo zirkuitu bat ere, eta horri eskerrak gure lanak beste espazio batzuetara eramaten ditugu. Gaztetxeek, kultur etxeek eta eta beste leku txiki batzuek antzerkia egiteko eta bizitzeko beste modu bat eskaintzen dute. Beste publiko batenagana heltzeko aukera ere ematen dute. Plentziako (Bizkaia) Danontzat gaztetxean, adibidez, urte askoan egon gara. Hainbat urtean itxita egon da eta abenduan berriro zabaldu eta gero, hara bueltatu ahal izatea oso polita izan zen guretzat. Ederra da ikustea belaualdi berri bat dagoela han lanean, espazio autogestionatu bat kudeatzen.

Aitor García de Vicuña 'Identitateak' aurreko lanean ere parte hartu zuen, baina hau du lehenengo lana hasieratik parte hartzen duena. Zelan moldatu zarete?

Aspalditik elkar ezagutzen dugu. Identitateak muntatzerakoan oso blokeatuta geunden eta laguntasuna eskatu genion. Antzezlanaren soinu-espazioa prestatu zuen. Hasieran kanporako zen, baina oholtza gainean amaitu zuen; lanari laguntzen zion eta ikusleak ikusi egin zezakeen soinua manipulatzen. Kasu honetan, hasieratik inplikatu zen eta antzezlanaren anplifikatu barik egitea proposatu zigun; erronka hori bota zuen. Soinu batzuk egiten ditu, baina pertsonaia bat ere badu eta aktore lanak ere egiten ditu oraingoan. Plazaz asko egin du eta badaki taula gainean egoten. Lehenengo esperientzia du aktore lanetan, baina kontzertu ugari eman du eta oso ondo moldatzen ari da.

'Herrian' egitasmoa Zornotzara heldu da

MUSIKA Bederatzi kontzertugaz, musikak Zornotzako kaleak hartuko ditu zapatuan 'Herrian' ekimenean; BBK Live jaialdia Bizkaiko beste herri batzuetara zabaltzeko helburuagaz antolatzen dute ekimena; 13:00etan hasiko dituzte emanaldiak

A. M. ZORNOTZA

Zapatuan, *Herrian* musika jaialdia egingo dute Zornotzan, BBK Live jaialdi entzutetsuaren go-segarri legez. Egun osoko egitaraua prestatu dute Zelaia eta Zubiondo parkeetan egongo diren gunetan, eta bertan bederatzi artistak egingo dituzte emanaldiak; besteak beste, Leihotikan, VVV [Trippin' You] eta Los Deltonos taldeek. Eguerdian ekingo diete kontzertuei, 13:00etan, eta 23:00etan amaituko dira. BBK Banku Fundazioak, Kreatibo Industriak fundazioak eta Zornotzako Udalak antolatu dute musika ekimena.

Antolatzaileen esanetan, *Herrian* jaialdira doazenez "prezio berezian" erosi ahal izango dute BBK Liverako sarrera; uztailaren 10ean, 11n, eta 12an izango da jaialdi entzutetsua, eta, besteak beste, Bad Gyal, Pulp eta Kylie Minogue artistek parte hartuko dute bertan.



VVV [Trippin' You].

Kritika Matrailutik

Bestalde, Matrailu gaztetxean ere kontzertuak antolatu dituzte, "enpresak kontrolatu eta instituzioen menpe dagoen" kultur eskaintzari alternatiba eskaintzeko helburuagaz. Horrela, Skabidean, La

Fulla eta Txapelpunk taldeak egongo dira gaztetxean. Maiatzean 25 urte bete dira Zornotzako lehenengo gaztetxea okupatu zutenean, eta, hori dela eta, *Okupazioaren testuinguru politikoa* berbaldua ere emango dute, hilaren 31n.



Gerediaga Elkarteko eta Durangoko Udaleko ordezkariak.

Zortzigarren Sormen Beka komiki proiektu bat izango da

DURANGOKO AZOKA Deialdiaren irabazlea nobedadeetariko bat izango da 2026ko Durangoko Azokan

Aritz Maldonado DURANGO

Gerediaga Elkartek eta Durangoko Udalak Sormen Beka DA!-ren deialdi berria egin dute. Zortzigarren deialdi honetan, komiki proiektu bat babestuko dute; izan ere, "bere lekua egiten dabilen generoa da", Nerea Mujika Gerediagako presidentearen berbetan. "Iazko Durangoko Azokako nobedadeen artean komiki asko ikusi genuen; leku zabalagoa behar dutelakoan erabaki dugu aurtengo deialdia komiki proiektu bati eskaintzea", azaldu du aurkezpenean. Irabazleak 15.000 euro jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea irailaren 21ean itxiko

da. Ondoren, onuradunak urtebeteko epea izango du proiektua garatzeko. Gero, 61. Durangoko Azokan aurkeztuko du.

Aurreko zazpi edizioetan, literatura, musika, ikus-entzunezkoa, proiektu digitalak, arte eszenikoa, familia transmisioan eragiteko proposamena eta Durangoko Museorako esku-hartze artistikoa saritu dira. Azken hau Irati Bazeta abadiñarra lantzen dabil. Bazetak 60. Durangoko Azokaren barruan aurkeztuko du *Harien isla* izeneko lana; horrez gainera, Durangoko Arte eta Historia Museoa erakusketa zabalduko du egun horietan.



GAI LIBREAN

MIREN ERDOIZA MUJIKA BEHARGINA

Makuluak

Metroan nago lanera bidean. Hemen pertsonak ez daukate begirik. Nik ez dizkiet ikusten behintzat. Hemen pertsonak artifiziala den argi batek argitzen die bisaia. Hemen, tramankulu honen barruan nagoenean, ez dizkiet parekoari begiak ikusten.

Begirik ez duena elbarria al da?

Pentsatzen jarri naiz. Saiatu naiz kalkulatzeko, estimazio bat egiten. Ez naiz kapaza izan, ez dakit. Ez daukat akorduan noiz ibili nintzen azkeneko oinez makulurik gabe. Memorian atzera egin nahian nabil, eta nire gorputza dakusat lurretik narrasean, lanera joan behar, eta ohetik jagitzeko ahaleginari eutsiz. Esfortzua egiten dut oroitu nadin noiz ibili nintzen azkeneko makulurik gabe. Gogora dezaket lau hankatan ibili naizela maiz. Hankekin ezin, eta eskuek lagunduta joan naizela familia bazkarietara, kartzelara, kuadrillako afarietara, hankartetara.

Pentsatzen jarri naiz, saiatu naiz kalkulatzeko, estimazio bat egiten. Ez dakit noiztik naizen ni elbarria.

Hemen pertsonak ez naute ikusten. Hemen pertsonak ez didate begiratzen. Begiratzen duenak ikus dezake soilik, eta ni, elbarria naiz, baina begiak ditut. Eta ikusten ditut pertsonak, baina pertsonak mugikorraren pantailari daude so.

Elbarria naiz memoria daukadan garai beretik. Memoria daukat oroitzeko zenbatetan esan didaten ezetz.

"BEGI BAKOA ELBARRIA DA, ETA BIHOTZ BAKOA HILDA DAGO. NI BIZIRIK NAGO. BIHOTZA IGARTZEN DUT TAUPADAKA"

Ez janzteko horrela, ez zaidala esan nahi dudana ulertzen, ez jateko hori, ez esateko bestea.

Makuluekin nabil oinez. Arrastaka nabilenetan eusten didate Urkiola aldeko parajeek, bizikleta itzuliek eta osteko azeitunek. Ibiltzen lagun diezadaten heldu ditut igande gauetako laztanak, maitasunetik eta zaintzatik jasotzen ditudan *egun on* eta *gabon*-ak, Igeldoko argiak. Bermatu naiz *hemen nago* esaten didan ororengan; nire amaren begietan, aitaren berbetan.

Begi bakoa elbarria da, eta bihotz bakoa hilda dago. Ni bizirik nago. Bihotza igartzen dut taupadaka. Memoria badaukat, baina gauzak ahazten zaizkit. Min eman didana ahaztu dut, ez dakit zeinek utzi ninduen ezinduta. Orain makulutzat daukat begiratzen nauen oro. Ikusi nahi nauena. Metroan ez naute begiratzen pertsonak, baina nik ikus ditzaket. Begiratzen dudanetik badakit non zapaldu. Elbarria naiz eta makuluak behar ditut. Astiroago nabil orain; baina ibili, banabil.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 23

ATXONDO Kontzertua
Silvia Palumbo.
Arazolako Amillena bentan, 20:30ean.

ABADIÑO Santrokazak
San Trokaz txapelketako finalak, 18:00etan, Tornosolo trinketean. Andoni Ollokiegi, 19:00etan, Txanportan. 'Moko' antzezlan (Gorakada). *Probalekuan, 22:00etan.*

DURANGO Erakusketa
Fernando Beorlegiren lanak. *Arte eta Historia Museoa, ekainaren 1era bitartean.*

DURANGO Erakusketa
'Zientziak, arteak eta letretako 24 emakume' erakusketa ibiltaria. *Ezkurdin, maiatzaren 29ra arte.*

DURANGO Erakusketa
Pintura eta zeramika erakusketa (SormenArt Akademia). *Ezkurdin, maiatzaren 25era arte.*

DURANGO Erakusketa
'Ihesa zilegi balitz. Huir es un derecho' (Gari Garaialde&Javi Julio fotokazetariak). *Landako Gunean, maiatzaren 25era bitartean.*

ELORRIO Bertso saio musikatua
'Tabuen kutxatik oholtzara': Ane Labaka, Jone Uria, Oihana Bartra eta Onintza Enbeita bertsolariekin, eta Araitx Bizkai eta Gari Otamendi musikariekin. Amaia Agirre arituko da gaiak ipintzen. Izan Iñurri elkartea. *Arriola antzokian, 19:00etan.*

IURRETA Ipuinak
'Bidaia' (Amaia Puin). *Bibliotekan, 17:30ean (3-5 urte) eta 18:00etan (6 urtetik gora).*

IURRETA Tailerra
Serigrafia tailerra (Torontile). *Abadetxean, 18:00etan.*

IURRETA Ahozko narrazioa
'Por la ruta de la seda' (Halka Cuentos Universales). *Bibliotekan, 19:00etan.*

IURRETA Ekitaldia
Berba-kafea. *Askondoko karpan, 18.00etan.*

ZALDIBAR Aurkezpena
Euskara indartzeko gurasoen dekalogo, Biak Bat eta Zalduaren eskutik. Ondoren, 19:00etan, kantu-poteoa Berakatz taldeagaz, Zaldusolo plazatik. *Udaletxeko plazan, 18:30ean.*

ZORNOTZA Erakusketa
Say Cheese (Adrián Castañeda, Hemen Proiektua eta Cristina Souto). Hemen proiektu kolektiboaren jardura, 12:00etan. *Zelaieta zentroan, ekainaren 6ra arte.*

ZORNOTZA Ipuin kontaketa
'Abentura zirraragarria'. *Zelaieta parkean/ Zubiondo plazako karpan, 18:00etan.*

ZAPATUA 24

ABADIÑO Santrokazak
Artisautza azoka, 11:00etan. Diskofesta, 12:00etan. Paella eta bingo musikala, 14:30ean. Orkresta elektrotxaranga, 18:30ean. Süne + Dupla, 21:30ean. Ondoren, Dj Kool (Txanportan). *Ferialeku plazan.*

DURANGO Afrika Eguna
Djembe tailerra, 11:00etan. Adierazpena eta kalejira Batudamak batukadagaz, 12:00etan.



SILITIA

BERRIZ Kontzertua
Ibai Silicatok eta Xabier Barrutiak sortutako Silitia taldearen azken lana entzuteko aukera egongo da Berrizen. EZ EZ EZ gernikarrak ere igoko dira oholtzara. *Maiatzak 23, barikua, Hiltegitze gaztetxean, 22:00etan.*

Photocall-a eta tailerrak, 13:00etan. Afrikako janari eta edariak, 14:30ean. 'Ndynga: Afrikako ipuinak' (Deborah Ekoka&Dou Dou Nganga), 17:00etan. Dantza tailerra (Follow the party), 18:00etan. Afrika Bibang&Denjah Man, 20:00etan. *Andra Marian eta Landako Gunean.*

IURRETA Arrozen Eguna
Arrozen lehiaketa eta dastatzea. Ondoren, bazkaria. (Txartelak maiatzaren 23ra arte, Nagusien Zentroan eta kultur etxean). *Askondon, 11:00etan hasita.*

IURRETA Bertsoak
Ane Labaka, Amaia Iturriotz, Iruri Altzerreka eta Janire Arizabalaga. Gai jartzailea: Araitx Katarain. *Abadetxean, 18:00etan.*

IURRETA Kontzertua
William Plays & Tales. *Korta tabernan, 20:30ean.*

IURRETA Bizikleta irteera
Natxiuara bizikleta irteera. *Iurreta, 08:30ean.*

MALLABIA Lehiaketa
Mallabitarrok egina: XII ibilaldia, 10:00etan. Gero, 'Ez esan!' lehiaketaren finala, Parkeko aterpean. Briska txapelketa, 17:00etan, probalekuan.

Herri kirolen erakustaldia eta umeentzako saioa. *Probalekuan, 19:00etan.*

OTXANDIO Musika
XLIV. Udabarriko Kontzertuak: Oihandi Abesbatza, Usansolo Orfeoia eta Bleibet korala (Aiara). Santa Marina elizan, 20:00etan.

ZORNOTZA Herri Ekimena
Leihotikan, Colectivo Da Silva, Los Deltonos, Rakky Ripper, Marilia Monzon, Tiburona, STR, Pauline en la playa eta VVV [Trippin' You] *Herriko kaleetan, 13:30ean.*

ZORNOTZA Musika
XLIV. Udabarriko Kontzertua: Abeskimu Abesbatza, Coral Zornoza eta Isasiko Ama (Gordexola). Zornotza Aretoa, 19:00etan.

DOMEKA 25

ABADIÑO Santrokazak
Larun gunea: Euskal mitologian inspiratutako jokoak (3-99 urte) Jokai elkartearen eskutik (11:00-14:00). Ferialeku plazan. Kalejira eta dantzaldia (Talde Batuak eta Txanbolin), 18:00etan. Txokolatada, 19:00etan. GERBASi agur, 20:00etan. *Txanporta plazan.*

BERRIZ Herri kirolak
Umeentzako jolasak eta herri kirol hastapenak, 11:30ean. Herri kirolen erakustaldia, 13:30ean. *Olakueta plazan.*

IURRETA Bizikleta irteera
Unbera bizikleta irteera. *Iurretan, 08:30ean.*

IURRETA Dantza
Maiztegiko umeen dantza ikuskizuna. Ondoren, trikitilariak. *Dantzari plazan, 12:30ean*

MALLABIA Ikuskizuna
'Itzal(iko) bagina' (Lanku). Ondoren, Euskaraldiaren amaiera eta luntxa. *Plazan, 13:00etan.*

OTXANDIO Mendi irteera
Motxotegira irteera. Tontorrean Ubidetik eta Legutiotik igotako

ZINEMA

DURANGO
ZUGAZA ZINEMA
Misión imposible. Sentencia final.
Barikua 23: 17:15, 20:30.
Zapatua 24: 16:15, 18:30, 21:45.
Domeka 25: 17:45, 19:30.
Astelehena 26: 18:30.
Martitzena 27: 18:30.
Eguaztena 28: 19:00.
Un buen padre
Barikua 23: 18:00, 20:30.
Zapatua 24: 19:30, 21:45.
Domeka 25: 20:00.
Astelehena 26: 18:00, 20:15.
Martitzena 27: 18:00, 20:15.
Eguaztena 28: 19:00.
Lilo & Stitch
Barikua 23: 18:00, 20:30.
Zapatua 24: 16:15, 17:00, 19:30, 21:45.
Domeka 25: 17:00, 17:45, 20:00.
Astelehena 26: 18:00, 20:15.
Martitzena 27: 18:00, 20:15.
Eguaztena 28: 19:00.

ELORRIO
ARRIOLA ANTZOKIA
Muy lejos
Zapatua 24: 20:00.
Domeka 25: 20:00.
Astelehena 26: 20:00.

ZORNOTZA
ZORNOTZA ARETOA
Confidencial (Black Bag)
Barikua 23: 20:00.
Domeka 25: 20:00.
Astelehena 26: 20:15.
Minecraft, film bat
Domeka 25: 17:00.
La historia de Souleumane
Martitzena 27: 20:15.

herritarrekin batuko dira, 12:00etan. Guztiek Euskaraldiaren kanta abestuko dute. Ondoren, Emojonk! jolasaren azken errondaren zuzenekoak. *Plazan, 10:00etan.*

ZALDIBAR Ekitaldia
Amaiera ekitaldia eta luntxa. *Udaletxeko plazan, 19:00etan.*

ASTELEHENA 26

MALLABIA Berbaldia
'Zoriontasuna lortzeko elikagaiak' (Hizlaria: Maite Gonzalez osteopata). *Kontzejuzarrean, 16:00etan.*

EGUENA 29

DURANGO Berbaldia
'Voluntades anticipadas' (Hizlaria: Inma Parra erizaina). *Otamotzena auzogunean, 18:30ean.*

MALLABIA Pilota
XXI. Biharko Izarrak txapelketako finalurrekoak. *Frontoian, 20:45ean.*

Joseba Derteano ABADIÑO

Gazteek mendi bizikleta proiektu interesgarri legez sentitzea, horixe lortu gura du Ion Sarasua apurka-apurka. Horretarako, gertutasuna eta urte osoko jarraipena egitea elementu garrantzitsuak direla uste du.

Zelan heldu zaizu federazioaren eskaintza?

Kirol guztietan, ez txirrindularitzan bakarrik, titulazioak aldatu egin dira. Federazioa eskakizun berrietara egokitutako norbaiten bila zebilen eta niri deitu zidaten, hirugarren mailako titulazioa atera dudalako. Orain hilabete inguru eskaini zidaten.

Gaiari buelta asko eman zenizkion baietza eman aurretik?

Bai, asko. Hau ez da nire ogibidea, txirrindularitza gustatzen zaidalako nabil mundu honetan. Eta horrelako ardurak hartzeak badakit zer dakarren. Azkenean, hartutako erabakien erantzule nagusia norbera da eta erabakiak gustukoak izan daitezke zein ez. "Zertarako sartuko naiz horrelako erantzukizunetan?", pentsatzen nuen hasieran.

Eta zerk eraman zintuen baiezkia ematera?

Batetik, federazioak nigaitekin egin duen apustuagaitik eta nigan izan duten konfiantzagaitik. Bestetik, proiektua bera erakargarria iruditzen zait. Azken urteetan Euskal Herrian mendi bizikletaren munduak ez du pisu handirik izan eta erronka motibaria iruditzen zait hori aldatzeko.

Raul Mena da federazioko presidentea. Ezagutzen zenuen aurretik?

Aspalditik ezagutzen dut. Txirrindularia nintzen sasoian, bera pistako hautzailea zen eta lau urtez pistako Euskadiko selekzioko parte izan nintzen. Gerora hartu-eman mantendu dugu. Egia esanda, federazioak eraman behar duen norabidearen inguruan berdin pentsatzen dugu.

Zure lantaldea konfiantzazko jendeagaz osatuko duzu?

Bai, jakina. Kostatuko da, baina talde teknikoa konfiantzazko jendeagaz sortzea oso garrantzitsua da, denboraldian zehar denbora asko emango duzulako jende horregaz. Ez da erraza familia utzi eta asteburuetan hara eta hona ibiliko den jendea bilatzea, baina horretan ahaleginduko gara.

"Ziklistekin gertuko tratua izan gura dut, hasieratik"

ION SARASUA AGIRRE (ABADIÑO, 1981) MENDI BIZIKLETA ARLOKO HAUTATZAILEA

Ion Sarasua Euskadiko Txirrindularitza Federazioko mendi bizikleta arloko hautatzaila izango da aurrerantzean. Gazteak mundu honetara erakartzea izango du helburu bat



Ion Sarasua Durangoko klasikoan, martitzenean.

Dromedario-Flotamet taldeko mendi bizikleta arloko ardura izan duzu orain arte. Taldea utziko duzu?

Oraingo jarraitu egingo dut, errelebo bat aurkitu arte. Aurrera begira, ordezkioa datorrenean, taldea uztea izango da egokiena, ez dut-eta taldeari merezi duen arreta eskaintzeko astirik izango. Baina behar duten denerako hor izango naute beti. Askok ikasi dut eta asko eman dit.

Zeintzuk dira hautzaile baten ardurak?

Hautatzaile baten ardura ez da ziklista bat edo bestea hautatzea bakarrik. Kantitatetik kalitatea aukeratu ahal izateko, lehenengo eta behin kantitatea behar da. Horretan eragin behar dugu. Txirrindulariek mendi bizikleta apustu erakargarri legez ikusteko lan egin behar dugu. Ez da sekretua Euskadin mendi bizikletak ez duela errepideko txirrindularitzak duen indarra. Gazteek normalean errepidea aukeratzeko dute. Horixe da falta zaila: denboraldi hasieratik amaierara mendi bizikletarako apustua egingo duten ziklistak,

"ZIKLISTEK MENDI BIZIKLETA APUSTU ERAKARGARRI LEGEZ IKUSTEKO LAN EGIN BEHAR DUGU"

konpromiso hori hartuko dutenak. Formularik egokiena zein den azertu beharko dugu, baina denboraldi hasieratik bertatik ziklistekin gertuko tratua izatea da nire ideia. Ez selekzioan dabilzanekin bakarrik, baita eremu zabalagoan ere: eurekin berba egin, zer asmo duten galdetu, orientatu... Gertutasuna erakutsi, euren konfiantza irabazteko eta mendi bizikleta aukera interesgarri legez sentitu dezaten. Euskadiko selekzioa mendi bizikleta bultzatzeko elementu garrantzitsu bat izatea gustatuko litzaidake proiektu orokor baten barruan.

Gaur egun, mendi bizikletak Bizkaian indar handiagoa du Gipuzkoan eta Araban baino?

Gaur egun, mendi bizikleta Bizkaian baino ez dagoela esan daiteke. Gipuzkoan eta Araban ez du indarrik. Ildo horretatik, mendi bizikleta Euskal Herrian indartu gura badugu, Gipuzkoako eta Arabako federazioek ere apustu bat egin behar dute, Bizkaikoak egiten duen legez. Federazioekin ere hartu-emanetan nabil.

Green Series txapelketak mendi bizikletan lehiatzeko aukera eskaintzen die gazteei. Egutegi horretako lasterketa bat Abadiñon egin izan da, gainera. Horrelako txapelketa gehiago behar dira?

Federazio guztien artean, Nafarroakoa barne, Euskal Herriko Okena sortzea aurrerapauso bat litzateke, beharbada. Green Series txapelketa baino apalagoa izanda ere, gazteei mendi bizikletan aritzeko aukera eskainiko dien txapelketa finko bat, sasoi batean zegoenaren modukoa. Gaur egun ez daukagu egutegirik Euskal Herrian, eta pena da. Hori bermatzea da nire asmoetariko bat.

Aurtengo egutegiari begira, uztai-lean Granadan izango den Espainiako txapelketa duzue hitzordu nagusia?

Bai, aurtengo gure helburu nagusia Espainiako txapelketa da eta baita Team Relay proban aritzeko talde bat ateratzea ere. Iaz ez zuten talderik atera. Gainera, talde lehiakor bat egiteko aukera dagoela uste dut. Team Relay taldeka eta adinka banatuta egiten den proba da. Maila batekoek euren lana amaitzen dutenean, beste adin tarte bateko taldeari ematen dio erreleboa.

Elorrio finalean da, eta DRT finalaren atarian

ERRUGBIA Gipuzkoa Sortzen taldea menderatuta, Elorrio Rugby Taldeko gizonak Euskal Ligako finalean dira; Durango Rugby Taldeko emakumeek beste hainbeste lortu dezakete asteburuan. 14 puntuko aldea defendatuko dute itzuliko neurketan

J.D. ELORRIO/DURANGO

Elorrio Rugby Taldeko gizonak eta Durango Rugby Taldeko emakumeek maiatzaren 31n Gasteizen jokatu diren Euskal Ligako finalera begira jarraitzen dute. Elorriokoak dagoeneko sailkatu dira finalera; bestalde, DRTko emakumeek alde polita dute, baina oraindino itzulerako partidua jokatu behar dute.

Elorriok Gipuzkoa Sortzen taldea kanporatu du finalerdietan. Joan zen asteburuan etxean 19-23 galdu arren, joanekoan 30-23 nagusitu zirenez, finalera sailkatzea lortu zuten. Elorrio denboraldi bikaina osatzen ari da: liga erregularrean 20 partidutik 18 irabazita, lider amaitu dute eta ez da lehenengo aldia. Hirugarren urtez jarraian izan dira Euskal Ligako lehenengo sailkatuak.

Bestalde, Durango Rugby Taldeko emakumeek 52-38 garaitu zuten Gaztedi finalerdietako



Elorriok Gaztediren aurka San Roke zelaian jokaturiko partidua. ELORRIO R.T.

joaneko partiduan. Arripausue-tako neurketan, durangarrak erasoan inspiratuta aritu ziren eta zapatu honetan Gasteizen jokatu den itzulerako neurketan 14 puntuko aldea defendatu beharko dute durangarrek.

Alde polita da, baina ez erabakigarria, Gaztedi maila handiko taldea da eta.

Gizonetan nahiz emakumeetan, Euskal Ligako txapelketako finalak maiatzaren 31n jokatu dira, Gasteizen.



Iazko aldiko podiumeko irudia.

Bugalloren oroimenezko lasterketa izango da zapatuan

TXIRRINDULARITZA Aurten hamargarren aldia beteko du eta 150 bat txirrindularik parte hartuko dute

J.D. DURANGO

Duranguesa Txirrindularitza Elkartek Aitor Bugalloren oroimenezko lasterketa antolatuko du zapatarako, 10. edizioa. Kadete mailako lasterketa 16:30ean hasiko da, Ezkurdin, eta hantxe izango du helmuga ere. 80 kilometroko itzulian birritan egingo dute Miotarako joan-etorria. Ondoren, beste behin igaroko dira Garaitik. Azken igoera horretan, txirrindulari gazteek aldats gogorrei aurre egingo diete. Proba 17:45 inguruan amaituko da, Ezkurdin. Guztira, 150 bat txirrin-

dularik parte hartuko dute eta Bizkaiko Koparako puntuagarrria izango da.

Lasterketa honek Durangoko gune batzuetako trafikoari eragingo dio. Durangoko Udalak ohar batean jakinarazi duenez, kale mozketak asteburuko oinezkoen gunean egingo da, San Agustinalden (Museotik), Zumalakarregin eta Josemiel Barandiaranen, hain zuzen ere. Kasu honetan ere, Alde Zaharreko kaleetara sartzeko Kanporrosteta kalea erabili beharko da eta Uribarritik Andra Mari kalera sartu.



JOKALDIA

DANI NUÑEZ KICKBOXINGA ETA BOXEOA

Durango, kickboxingaren topaleku

Ekainaren 28an, Durangoko Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan, North Fight Series ekitaldiaren lehen edizioa jokatu da eta aukera paregabea izango da kickboxingari eta antzeko modalitateei ikusgarritasuna emateko. Laureano Fight Team eta 4Kick klubek antolatutako jaialdiak maila ezberdinetako borrokalariak bilduko ditu, bai amateurak bai profesionalak, emakumeetan eta gizonetan.

Durangon inoiz baino ozenago entzungo dira kontaktu-kirolaren taupadak. Eta hori gure eskualdearentzat aukera bat da: kirol diziplina hau jendarteratzeko, estereotipoak apurtzeko eta zale berriak erakartzeko aukera. Izan ere, borrokaren atzean bada isilpean egiten den lana, eta hura ulertzea funtsezkoa da kickboxingaren benetako dimentsioa ikusteko.

Batzuek uste dute kolpeak ematea dela kirol honen muina. Baina kontrakoa da egia: kontrola, diziplina eta errespetua dira oinarria. Kirol honen muina nor-

**"EZKURDI PILOTALEKUAK
NORTH FIGHT SERIES
EKITALDIAREN LEHEN
EDIZIOA HARTUKO DU
EKAINAREN 28AN"**

**"ESKUALDEARENTZAT
AUKERA BAT DA KIROL
DIZIPLINA HAU
GIZARTERATZEKO ETA
ZALEAK ERAKARTZEKO"**

bere burua ezagutzea eta gaintitzea dira. Entrenamendu ordu luzeek gorputza zein burua hezten dituzte, eta ringean sartzen dena ez da borrokalari hutsa: lanaren, konpromisoaren eta balio jakin batzuen isla da.

Gazteentzako alternatiba osasuntsua ere bada kontaktu-kirola. Energia bideratzeko bide bat, autoestimua lantzeko esparru bat, eta, batez ere, balioetan hezteko tresna indartsua. Horregatik, kirol hau ez da soilik ikuskizun modura hartu behar; hezkuntza eta garapen pertsonalerako tresna modura ulertu behar dugu.

Ekainaren 28koa ez da egun arrunta izango Durangon. Euskal Herriko hainbat klub bertaratuko dira, baita lehiakideen senide eta lagunak ere. Jai giroko kirol ekitaldi handi bat izango da. Datozen asteetan jakinaraziko dugu informazio gehiago: sarrerak zelan eskuratu, lehiakideak nortzuk izango diren... Ilusio handiz prestatzen gabiltzan ekimena denon gustukoa izatea espero dugu.

GUARDIAKO BOTIKAK

MAIATZAK 23, BARIKUA
09:00-09:00
Irigoién, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 24, ZAPATUA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 25, DOMEKA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 26, ASTELEHENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 27, MARTITZENA
09:00-09:00
Navarro, Artekaia 6 - Durango
Gutierrez Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
MAIATZAK 28, EGUTENA
09:00-09:00
Etzebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - ZornotzaBazan, Uribarri 5 - Durango
MAIATZAK 29, EGUENA
09:00-09:00
Bazan, Uribarri 5 - DurangoSanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Gutierrez, Txiki Otaegi 3 - Zornotza
09:00-22:00
Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK



Joanes
Zorijonak **Joanes!** Argazkiari jarraituta ondo pasau zure urtebetetze egunien, eta zure bizitzako gainerako egunetan. Ez galdu irribarre hori. Besarkada eta belarrietako tirekada handi bana maite zaitugun danon partez, eta bereziki lzei eta aman partez.



83ko kintoak
Maiatzaren 10ean 83ko kintoak batu ginen aspaldiko partez. Ederto pasau ginun. Berriro batzeko gogoagaz.



Ekhi
Zorionak, **Ekhitzu!** Mosu eta besarkada piloa maite zaitugun danon partez!



Ekain
Zorionak, **Ekain!** 9 egunen barruan 6 txapelketa irabaztea ikaragarria izan da: Bizkaiko mahai-tenis finala; Durangaldeko, Argantzoneko eta Ortuellako xake txapelketak; Bizkaiko esku pilota finala eta Ortuellako esku pilota txapelketa. Jarraitu horrela, txapeldun!

GOZATU GOZOTEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
☎ 661 40 14 00
📘 Gozatu Gozotegia
📍 gozatugozotegia

Urte askotarako!

Zorionak Isidra (1022.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Ordezkaritzak
Etorri zaitzez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

ESKELA

Amparo Magunacelaya Vizcarra

Santiago Arrizabalagaren alarguna
2025eko maiatzaren 21ean hil zen, 98 urte zituela.

*Amparo ijje 100 urte
Eruen dozuz aldien
Oin deskantsue hartu eizu
Untzillatxen magalien*

Ijorretako lagunak

Smurfit Westrock
Central Forestal

+55 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

Smurfit Westrock
Nervión



Durangaldeko
EZPATA
DANTZARI
Eguna 2025

Maiatzak 31

Kalejira 17:30ean

Saioa 18:00etan

Trikipotea 20:00etan

Mallabia

Durangaldeko
dantza taldeak
eta txistulariak



Domekitisa

Igande arratsaldean da eta ez zara zinera joango, ez duzu afaltzeko planik egingo, ez duzu egoera sozialari buruz eztabaibatuko. Telebistako eta telefonoko txorradekin entretenituko zara eta txarrikeriaren bat jango duzu. Mantapean ezkutatuta, gaixorik dirudizu. Diagnostikoa argia da: domekitisa daukazu.

Barikuan laneko zurrunbi-loaren itolarririk irten eta zapatuan arnasa sakon hartu eta gero, ostera ere astelehenera jauzi egiteko tranpolinean kokatu zara. Gure destinu petrala: denbora merke-zurrean saltzen ibili beharra, zer eta bitarteko astia lanerako bel-durrez igarotzeko.

Gata Cattanak poema batean eman zigun abisu, denbora dela jaiotzerakoan eskuratzen dugun bonus bakarra. Egia esan, gure bizimoduak Momoren ipuinaren antza hartu duela esango nuke, tenpus hori lapurtu nahi diguten gizon grisak atzetik ditugularik. Baina, ez dakit gu geu astiaren benetako balioak jakitun ote garen. 'Denbora librea' deitzen diogu lanetik kanpokoari, norbaitek baimendu eta entregatuko baligu legez. Izan ere, horixe da antzezpen hau gidatzen dutenen garaipen handienetako bat, gure denboraren jabe ez garela sinestaztea.

Domekak berreskuratu behar ditugu.

AKUILUA

"Pozgarria da gazteen aupadak jasotzea"

JESUS GISASOLA GISASOLA IRAKASLEA

Joan zen asteburuan Mallabian egin zen 7 Pago mendi lasterketan parte hartu zuen aizkolari ezagunak. Osasunak lagundu bitartean parte hartzen jarraituko duela dio

A. Basauri MALLABIA

Aizkolari legez ibilbide oparoa egin eta gero, Jesus Gisasola Gisasola 'Zelai II.'-ak (Mallabia, 1963) entrenatzaile lanetan jarraitzen du herri kirolen munduan. Horrek bizipoza ematen dio eta gazteek jarraitu bitartean segituko du. Herri kirol jaialdian, mallabitarrek esatari lanak egiten ditu.

7 Pago lasterketan iazko denbora hobetu duzu (02:11:00). Bat baino gehiago aho zabalik utziko zenuen.

Baliteke, baina egin dudanak ez du meritu handirik! Bizi osoa kirola egiten eman dut, aizkoran. Aspaldian lagata izan arren, beti entrenatu naiz zeozertxo. Gainera, mendian ibiltzea gustatzen zait, naturala da niretzat. Iaz ez nintzen batere entrenatu eta egundoko jipoia hartu nuen. Hurrengoan, osasunak lagunduz gero apurtxo bat entrenatuko nintzela esan nuen. Asuntza aldera osteratxo batzuk egin ditut, neure gustura, makila hartu eta txakurragaz. Asko ez. Ibilbidea ezagutzea ere lagungarria da. Beharbada, gazteei deigarria egingo zitzaizen zahar bat korrika ikustea.

Animatuko zara Durangaldeko Kopako beste lasterketaren batera?



"IAZKO JIPOIRIK EZ HARTZEA NUEN HELBURU, HELMUGARA POZIK HELTZEA"

Ez. Herrian antolatutako jaiegun polit batean parte hartzeko gogoan nuen, besterik ez. Iazko jipoirik ez hartzea nuen helburu, helmugara pozik heltzea. 61 urtegaz belaunak eta orkatilak ondo ditut, oraingoz behintzat. Zorte hori dut. Horrek egundoko poza

ematen dit. Garrantzitsua da osasuntsu bizitzea.

Zein sentsaziogaz amaitu zenuen? Pozik, nire adinean osasuntsu sentitzen naizelako, batez ere. Iaz asko sufritu nuen. Oinez izanez gero, ondo ibiliko nintzen. Baina azken unean konturatu nintzen lasterketa zela, semeak esanda. Izena emanda nuenez, joatea erabaki nuen. Oso txarto pasatu nuen. Aurten asko disfrutatu dut, azken aldera apur bat nekatuta nengoen arren.

Helduenetarikoa izango zinen.

Bai, denak gaztegoak ikusten nituen, behintzat! Bertakoa izatera ere eskertzekoa da jende piloa animatzen ikustea. Oso polita izan zen. Antolakuntzaren lana ere eskertu gura dut, herrian egundoko giroa sortzen da eta. **Zelan sentitu zinen gazteen artean?** Oso pozik, jakina! Gazteek bizitasuna dute, gazteen artean ibiltzea oso pozgarria da. Gazteek zeu onartzea ere garrantzitsua da. Herri txikia da Mallabia, gehienok elkar ezagutzen dugu eta pozgarria da gazteen aupadak jasotzea.

Mendi lasterketetan parte hartzeko grina piztu zaizu?

Apur bat bai! Osasuna baino ez dut eskatzen. Belaunek eta orkatilek laguntzen badirate, jarraituko dut. Antolatzen badute eta ondo banago, datorren urtean ere parte hartuko dut.

Aizkolari legez bide oparoa egin duzu, eta orain entrenatzailea zara. Osasuntsu daude herri kirolak?

Oso osasuntsu. Gainera, emakumeen artean aurrerapena handia izan da. Ekinaren ekinez markak hobetu dira eta egundoko maila dago. Harrobia ikustea ere poztekoa da. Herri kirolak serio hartzen hasi dira.



EUSKARALDIA lehiaketa

PARTE HARTU ETA IRABAZI OTZARA BAT

anboto

Eskualdeko zein herrian sukuratu dituzte zapi hamakako?

A Durango
B Zornotza
C Elorrio
D Berriz